



Gorlizko udaletxeko langileek euskara gehiago erabiltzeko trebakuntza-programa martxan dago. ▶9

Topagunearen Berbalagun egitasmoak koordinatzeaz arduratzen da Arrate Illaro algortarra; sei mila lagun dabilta mintzapraktiketan. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria




97. zenbakia

2017ko
ekainaren 1etik
ekainaren 7ra arte



Getxoko kultura, sarituta

Aixe Getxo! sarien zazpigarren edizioak udalerriko 15 kultur ekimenen eta eragileren lana aitortu du. ▶3



«Jendartearen eragiteko tresna da artea»

Iñigo Garrido Rey bideo-sortzaile areetarra Glasgown bizi da, aspaldidanik. Arte eszenikoetan behar egiten du. Behartsuenen eskubideen aldeko ekintzailea ere bada.

Orain dela urte nahikotxo erabaki zuen Areetan jaioetako Iñaki Garrido bideo-sortzaileak Glasgown (Eskozia) bizitzea; 1995etik bizi da han. OaksBark elkartearen sortu zuen

bertan, antzerkiak eta dantza garaikideak liluratuta. Egoera larrian dauden gabeziak salatzeko ere erabiltzen ditu irudiak; eta herrien askatasuna defendatzen du. ▶16-17

Berangoko ardoa, edateko prest!

▶8



Frankismoaren krimenak epaitzeko, Argentinako auzian parte har dezan eskatu dio Erandioko Udalbatzak Aldundiari. ▶5

Uribe Kosta institutuak *Baleak eta Euskal Herria* ekitaldia antolatuko du, datorren barikuan, Goñi Portalen. ▶7

Lemoizko zentral nuklearraren lurrei «historiarekin bat datorren erabilera» ematea eskatu du Eguzki taldeak. ▶10

Iaz batutako zaramaren birziklatze-tasari begiratu gero, oraindino badute zer hobetu Uribe Kostako herritarrek. ▶22-23



KOLDO ITURBE MENDILIBAR
EAJren bozeramailea

Udan jaiak etorriko dira denon onerako

San Isidroak igaro dira, jendez gainezka eta giro ezin hobean. Umeentzako eskaintza, gazteentzako kontzertuak, nagusientzako topaguneak eta batez ere tradizioaren gunea. Aspaldi Andra Mari auzoan berreskuratu genituen jaiak ematen diote hasiera gaur egungo udako jaien «prozesioari».

Ekainean, Zubilletakoak izango dira, familian eta lagun artean gozatzeko ospakizunak, Portu Zaharreko Korpua eta Santa Kolomako erromeria ahaztu barik.

Hurrengoak, uztailen, Karmenak izango ditugu Neguri Langilen. Aparteko auzo festak eta jarreraian eta atsedenek gabe, uztaila bukatzeko, Aixerrotako Paellak (ez egin kasurik zurrumuruei, egingo dira eta); San Ignazioak; su artifizialak, jaitsiera tradizionala, barrakak, txipiroi lehiaketa...

Geroxeago Romoko jaiak; aurten 50. edizioan eta abuztuaren erdialdera Portu Zaharrekoak, askorentzat udako jaien «gailurra» markatzen dutenak. Ez ditut kanpoan utzi gura, nahiz eta udatik oso gertu ez izan, Areetako Mesedeetako Amaren jaiak, besteak beste bere «karakolada» ospetsuarekin.

Eta guztien adierazgarri, jai batzorde herrikoien ekimena; Udalak jaien antolakuntzan laguntzen duen arren eta jaiak diruz laguntzen dituen arren, jaien meritua beraiena da. Urte osoan zehar aritzen direlako jaiak aurrera ateratzeko ahaleginetan, eragile ezberdinekin elkarlanean, eskura dituzten baliabideei etekin ezin hobea ateratzen. Beraien lana goraipatzea besterik ez dago.

Baina jaietan mezu batzuk ere gogorarazi behar dira: atsedenerako eskubidea eta parrandarako gogoaren arteko oreka zaindu behar dugu, neurri bat izan behar dugu alkoholarekin, eta altu eta garbi esan behar dugu: Berdintasunaren aldeko jai euskaldunak nahi ditugu eta eraso sexistei ezetz oihukatzen diegu! ◀

Getxo

Santa Anan ere abiarazi dute Getxo Txukun



Postontzia ipini dute Areetako Santa Ana auzoan, besteak beste.

Areetako Santa Ana auzoko bizilagunen iritziak jasotzeko programa martxan egongo da ekainaren 19ra arte.

Getxo txukun. Auzoz Auzo, Kalez Kale programa martxan ipini du Getxoko Udalak Santa Ana auzoan (Areetako). Parte-hartzea gauzatzeko, hainbat postontzi ipini dituzte Areetan: Jo-lastokietan eta Gobela kaleen arteko kantoian, metro-geltokiko sarreraren

ondoan eta Santa Ana plazan. Postontziak hilaren 19ra arte egongo dira leku horietan. Iradokizunak egiteko Udalak beren-beregi banatutako orri ebakigarriak erabil daitezke, eta, gero, horiek postontzietan sartuz. Aurretik, Gobela eta Santa Ana kaleen artean jarritako karpan ere zuzenean proposatu ahal izan ziren ideiak. Horrez gainera, gura duenak *online* ere parte hartu ahal izango du prozesuan.

Jasotako iradokizunak teknikoki kuantifikatu, aztertu eta baloratu dituzte Udalak, lehentasunak ezartzeko, eta egutegi bat finkatu da egin

daitezkeen proposamenetan esku hartzeko. Herritarren Parte Hartze Arloko zinegotzi Amaia Agirrek adierazi duenez, «obra txikiatarako dagoen aurrekontuagaz auzoan egin daitezkeen hobekuntzak jasoko dira. Era horretan, ezin izango dira jaso, esate baterako, kaleak, parkeak edo auzoak osorik berri urbanizatzea... Era berean, ez dira sartuko programan ekipamendu handiei lotutako eskaerak (kiroldegia, igerilekuak, osasun zentroak...), tekniko-ki edo ekonomikoki bideragarriak ez diren proposamenak, edo Udalaren eskumenekoak ez direnak». ◀

Bilbo metropoli-barrutiko Lurralde Zati Plana, martxan

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Zati Plana (BMLZP) berrikusteko prozesuaren hasierako fase amaitutzat jo dute, hau da, erakusketa ibiltariak bere bidea egin du. Hala, hurrengo pausoari ekiteko asmoz, herritarrak eztabaidatzeko saioak antolatuko dituzte lau udalerritan, Lurralde Plan berriaren Aurrerapena definitzeko. Horretarako, aukeratutako herrietako bat Getxo da. Hala, bertako herritarren beharrak, proposamenak eta gurak ezagutzeko asmoz, herritarren foroa prestatuko dute ekainaren 6an, Getxolan eraikinean (Ogoño kalea, 1). Saioa lehenengo solairuko 2 eta 3 gela izango dela jakinarazi dute antolatzailuek, 18:00etatik 20:00etara. Proze-



Erakusketa ibiltaria egin zuten martxoan Getxon.

su parte-hartzaile horren helburua da edukiaren gaineko iritzi guztiak azaleratzea; baita Bilbo Metropolitarraren Lurralde Zati Planaren aurrerapenean sar daitezkeen proposamen berri guztiak jasotzea ere. ◀

Oposizioaren lana «oztopatzen» dutela deitoratu dute

Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) oposizioaren lana «oztopatzen» duela salatu du EH Bilduk: «ez zaio axola erakunde autonomoetako estatutuak bazterrean uztea edo bozketa ukatzea». Adibidetzat ipini dute joan den asteko artezkaritza-kontseilueta jazo-takoa: euren ekarpenak, nahiz eta erregistro bidez «garaiz» aurkeztu, puntuak ez zirela gai-zerrendan sartu, besteak beste. Horregatik guztiagatik, «EAJren kutsu demokratiko eskasa» deitoratu du EH Bilduk; «nahi beste oztopo jarri ahal dizkigu, baina jarrera autoritario horiei guztiei aurre egingo diegu, eta gaindituko ditugu, gure ekinbidea indarberrituz», iragarri dute. ◀

Getxo

Aixe Getxo! sariek 15 kulturgile eta ekimenen lana aitortu dute



Guztira, 15 aitortza egin ziren, 14 kategoriatan banatu zirenak.

Getxoko kulturaren arlokoentzat urteko topagune bihurtu da Aixe Getxo! sariketa, arduradunen arabera.

Aixe Getxo! sariak banatu zituzten joan den astean. Imanol Landa alkateak azaldu zuenez, horien helburua da «saritzea kulturaren munduan, bere zentzu zabalenean, lan egiten duten pertsonak eta ekimenak: arte eszenikoetatik balioen hezkuntzaraino; musika klasikotik arkitekturaraino, edo literaturatik zientziaraino, edo berrikuntzarainoko esparruetan». Urteak joan eta urteak etorri, «Aixe Getxo! sariketa Getxoko kultur munduarentzat

urteko topagune bihurtu da», Udalaren esanetan. 14 kategoria ezarri ditu sariak emateko, eta saridunak honako hauek izan dira: Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteen atalean: Javier Baraiazarra, Mendi Film Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaria; Arte plastikoenean: Belen Lucas, ilustratzailea; Arte Eszenikoen: Aitor Basauri, aktorea; Musika Klasikoa eta Garaikidearenean: Georgina Barrios, piano-jolea; Gaur Egungo Musikarenean: Borja Barrueta, bateria-jolea, perkusionista; Literaturarenean:

Borja Ortiz de Gondra, dramagilea; Diseinuarenean: ROS Agentzia; Gastronomiarenean: Alvaro Martínez; Sukam jateko sukaldeburua; Arkitektura eta Eremu Publikoaren: Aaché Arquitectura Interior; Kultura Hezkuntzan eta Balioetan: Getxoko Zurrumurrik Ez Estrategia; Zientzia eta berrikuntza Kulturarenean: Marco Einöder eta Leire Apraiz, 1 Formulako Berrikuntza *F1 Connectivity Innovation Prize 2016* sariaren irabazleak; Kultura Ondarearenean: Berantzagi dantza-taldea eta Ondarreta abesbatza; Aixegaztea: Maria Glück, moda-diseinatzailea; eta Ibilbide Profesional eta Artistikoarenean: Algortako Irudi Taldea. ◀

Saridunak

Javier Baraiazarra

Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteen atalean.

Belen Lucas

Arte plastikoen atalean.

Aitor Basauri

Arte Eszenikoen atalean.

Georgina Barrios

Musika Klasiko eta Garaikidearen atalean

Borja Barrueta

Gaur Egungo Musikaren atalean.

Borja Ortiz de Gondra

Literaturaren atalean.

ROS, Komunikazio Elkarreragilearen Agentzia

Diseinuaren atalean.

Alvaro Martínez

Gastronomiaren atalean.

Aaché Arquitectura Interior

Arkitektura eta Eremu Publikoaren atalean.

Getxoko Zurrumurrik Ez Estrategia

Kultura Hezkuntzan eta Balioen atalean.

Marco Einöder eta Leire Apraiz

Zientzia eta berrikuntza Kulturaren atalean.

Berantzagi Dantza Taldea eta Ondarreta Abesbatza

Kultura Ondarea, hautemangaria eta hautemagaitzaren atalean.

Maria Glück

Aixegaztearen atalean.

Algortako Irudi Taldea

Ibilbide profesional eta artistikoaren atalean.

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 • 94 467 17 13
luberry@luberry.biz
www.luberry.biz

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4. URDULIZ
94 676 07 15

ez duzu ahaztuko
no lo olvidarás

UDAKO
ESKAINZA
2017 CURSOS
DE VERANO

aek
euskara praktikoa

URIBE KOSTAKO AEK
UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 • lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 • lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 • jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 • jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

Getxo



Jesusen Bihotzaren udal-egoitzan eskainiko dute zerbitzu berria.

Eguneko Arreta Zerbitzua, prest

Udatik aurrera martxan egongo da zerbitzu berria, Getxoko Jesusen Bihotzaren udal-egoitzan.

Eguneko Arreta Zerbitzu berria eskainiko dute Getxoko Jesusen Bihotzaren udal-egoitzan, uda heltzean. Egun osoan erabili ahal izango den zerbitzua izango da, eta intentsitate gutxiko laguntza emango diete mendekotasun egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsona nagusiei, beren autonomia mantentzen laguntzeko. Gainera, pertsonak horiek euren ohiko bizilekuan egon ahal izatea ahalbideratuko du zerbitzu horrek, baita euren sozializazioa ere, bakartze-egoerak leuntzearen aldera. Gizarte langileek egindako preskripzioaren ostean, Gizarte Zerbitzuek bideratuko dituzte aipatutako Arreta Zerbitzura joan ahal izateko eskaerak. Zerbitzu horrez gai-

nera, eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz dagoen hitzarmenaren bitartez epe ertainerako eskaintzen dituzenez gainera, lehengo mailako mendekotasuna duten pertsona nagusientzako ostatu-zerbitzua ere eskainiko du udal-egoitzak. Udal-zerbitzu berria martxan ipintzeko fasea arreta-ereduaren alaketagaz batera izango da egoitzan. «Aldaketa prozesu hori apurka-apurka egingo da (lau urtean), eta banakako gelen kopurua areagotzea ekarriko du, udal-egoitzan bizi diren pertsonen intimitaterako eskubidea gordetze aldera, etxeko giroarekin eta mendekotasun eta beharren maila desberdinetarako arreta egokiagoarekin», azaldu du Elena Coria zinegotzi arduradunak. ◀

Algortako San Inazio jaien kartel-lehiaketa martxan da

Algortako jai-batzordeak saninazioak iragartzeko kartel-lehiaketa martxan ipini du. Aurton ere, gogokoan daukaten kartela bozkatzeko aukera izango dute herritarrek, San Nikolas plazan, uztailearen 1ean, zapatuan, 12:00etatik 14:30era. Hala ere, hori baino lehenago, gura duenak bere proposamena aurkeztu beharko du, ekaina-

ren 22a baino lehenago, Villamonteko kultur etxean. Gaia librea da, hala ere, «Algortako Saninazioak 2017», «uztailak 28-31» eta «jaietan ere euskaraz!» goiburuak idaztea beharrezkoa izango da. Paperezko edizioan aurkezteaz gainera, irudi digitalizatuagaz CD bat aurkezteko beharra dago. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. ◀

EAEko alkate denak batuko dira Getxon, batzar orokorrean

Eudel EAEko Udalen Elkartek alkate denak elkartuko ditu Getxon eguenean, hilaren 1ean, urteko batzar orokorra egin asmoz. Izan ere, udalen arteko bilkura garrantzitsua izango da. Ekitaldiko partaide nabarmenen artekoak dira Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua eta Gudrun Mosler-Törnström CPLRE-Europako Kontseiluko presidentea, Imanol Landa Getxoko alkateagaz eta Eudeleko elkarte-buruagaz batera, besteak beste. Saioa itsas-bidaia ontzien moila berrian izango da, goizeko 10:00etatik aurrera. ◀

Begoñako materialen gaitzak, ekaineko bisita gidatuetan

Begoñako galerietako eraikuntza-materialen egoera zein den eta zelan zahartu diren azalduko dute hila-bete honetako bisita gidatuetan. Hala, uztailearen 2ra artean, galerien eraikuntzan erabilitako materialek gaur egun zelako afekzioak edo gaitzak dituzten jakinaraziko diete bisitariei. Gainera, eguenean, ekainaren 1ean, memoria kolektiboaren inguruko erakusketa bikoitza inauguratuko dute Algortako Torrene Aretoan, 19:00etan. Esposizio hori Begoñako galerien balioa nabarmentzeko proiektuaren barruan dago, horien inguruko memoria berreskuratzeko egin den lanaren ondorioa da. ◀



Ibar nagusien etxea eta udal-euskaltegia daude eraikin horretan.

Ibar nagusien etxea, Batzar Orokorrean

Eraikina herritarren zerbitzurako mantenduko dela bermatzeko, Udala estutzea eskatu dute.

Itzubaltzeta/Romoko hirigintza-garapen bideragarriaren aldeko plataformak Bizkaiko Batzar Orokorraren Eskara Batzordean parte hartu zuen joan den maiatzaren 22an. Ibar Nagusien Etxea Elkarteko presidentek ere parte hartu zuen agerraldi horretan, eta auzoaren hirigintza-planarekiko

desadostasuna agertu eta nagusien etxea eta udal-euskaltegia hartzen dituen eraikina bere horretan mantentzea eskatu zuen. Horrez gainera, orain dela gutxi Getxoko Udalak eraikin hori herritarren zerbitzurako mantentzeko mozioa onartu zuela gogoratu zuten, «gehiengo osoz». Hala, Udalak mozio hori bete dezan «estutzeko» eskatu zuten Batzar Orokorrean. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak eraikin horretan Eguneko Zentro bat egitea aintzat hartzea eskatu zuten, nagusien etxeko osagarri «oso ona» izan daitekeelakoan. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1.48991 ALGORTA
94 430 52 43 • 607 952 977
regaralar@gmail.com • www.garaizar.biz

Erandio

Frankismoaren aurka, Aldundiaren bitartez

Frankismoaren krimenak Argentinan epaitzeari ondo deritzo Erandioko Udalbatzak.

Bizkaiko Foru Aldundiari eskakizun zehatza egin zion Erandioko Udalbatzak, pasa den maiatzaren 25eko bilkuran: akusazio gisa parte har dezan Argentinako Justizia Administrazioak Frankismoaren aurka zabaldutako auzietan. Horretarako, udal-erakundeak Aldundiari eskatu zion Erandioko biktimen «komunikazio, lekukotasun eta froga guztiak» batu, eta prozeduran gehi ditzan. Modu berean, udal-bilkurak aholkatu zion Unai Rementeriaen foru-kabineteari auzia Espainiako Estatuko epaitegietan ere zabal dezan, «egingarria ikusten duenean». Onartutako testua EAJk proposatu zuen eta talde gehienek babesa izan zuen, PP izan baitzen bakarria ezezko botoa ematen, 1977ko Amnistiaren Legearen



Kereilaren plataformaren ustez, «gutxi» baina «eskertzekoa» da egiten den guztia.

aurkakoa dela iritzita. Dena den, testu jeltzaleak ez zuen oposizioa gogobete. Hala, Ganemos Erandio udal-taldeak aldeko botoa eman arren, kritikatu zuen Udalak bere ardura Aldundiaren bizkarrean ipintzea.

EH Bilduk, bestalde, gogorarazi zuen 80 urteko isiltasun instituzionalaren ondoren heldu dela pasa den egueneko akordioa. Ezkerreko koalizioak planteamendu zuzenagoa eroan

zuen Udalbatzara: Erandioko Udala bera Argentinako auzitegietan pertsonatzea. Bide hori sustatu izan du Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak zenbait udalerritan; daborduko, Gernika-Lumo, Iruñea edo Durangoko udalek iragarri dute auzian pertsonatuko direla. Halere, EH Bilduk adostasun falta ikusi zuen ekarritako mozioa onartzeko eta bertan behera utzi zuen. ◀

Bigarren pintxo-lehiaketa martxan ipiniko du Udalak

Ekainaren 2an hasiko da Erandio Pintxotan udalerriko II. pintxo-lehiaketa, barikuan. Ekimena hilaren 4ra arte eta hilaren 9tik 11ra egingo dute, Altxagan eta Astrabuduan, parte hartu gura duten ostatuetan. Udalak adierazi duenez, txapelketara aurkeztuko diren pintxoek dastatzeko prest egon beharko dute, gutxienez, ordu-tegi hauetan: barikuan eta zapatuan, 12:00etatik 15:30era eta 19:00etatik 22:00etara; eta domekan, 12:00etatik 15:30era. Pintxo-egileek ohorezko garaipenaz gainera, zenbait sari izango dituzte. Irabazleak 300 euro lortuko ditu eta ikastaro bat, Aingeru Etxebarriaren Bilboko sukaldaritza-eskolan; bigarrenak 200 euro jasoko ditu; eta hirugarrenak, 100 euro. Bestalde, herriarrek aukeratu ahal izango dute zein den, euren ustez, pintxorik onena; horren egileak 300 euro irabaziko ditu. Puntuak emateak ere saria ekar dezake, parte-hartzaileen artean 100 euroko hiru erosketa-txartel zozkatuko baitituzte. Epaimahai teknikoaren erabakia ekainaren 20an esango dute. ◀

Gure Esku Dagok batzar nagusia egingo du barikuan

Udalerrian herri-galdeketa egingo den erabakitzeke, Erandioko Gure Esku Dago plataformak batzar nagusira deitu du datorren barikuan, ekainaren 2an. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Batzarra zabal eta askotarikoa izatea gura dutenez, erandioztar denak gonbidatu dituzte parte hartzera, «gure herrian herri-galdeketa egitea bai ala ez» aukeratzeko. ◀



© ERANDIOKO GURE ESKU DAGO

Elikagai gehiago banatuko dute beharra dutenen artean

Erandioko Udalak eta Aunar elkar-teak berretsi eta zabaldu dute orain arte izan duten hitzarmena. Hala, iaz abiatutako elkartasun-tuper ekimena auzokide gehiagorengana ailegatu da; 22 pertsonarengana, denera. Modu berean, aurrerantzean plater bi ez ezik, azkenburua ere jasoko dute, pakete berean. Zailtasun ekonomikoak dituzten auzokideek janari-erra-

zioak jasotzeko egitasmoa da hitzarmenak adosten duena. Gizarte Ekintza zinegotzi sozialista Maite Pérezek azaldu duenez, «akordio honi esker neska-mutilen eta pertsona nagusien elikadura hobetuko da». Izan ere, baieztatu duenez, dieta berrian «produktu freskoak, haragia eta arraina izango dira, ez bakarrik Elikagai Bankuak izan ohi dituenak: pasta eta arroza». ◀



Itsasertzetik

GUILLERMO
MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Goikoetxearen Dabaiberen misterio beltza

Joan Mari Irigoien, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Xabier Mendiguren Elizegi... Idazle askoren lanen aurkezpenera joateko pribilegioa izan nuen garai batean. Benetan pribilegiatu sentitzen nintzen mirensten nituen idazleen uztaren berri eman ahal nuelako idatziz. Halakoak nolabaiteko zirra eragiten zidan uste bainuen, gaur egun legez, norbera hobea izan daitekeela liburu bat eskuan hartu eta irakurtzeko ohitura izanez gero.

Martxoan liburu baten aurkezpen batera joateko gonbidapena jaso nuen, jardun profesionaletik harago zihoana. Tximeletak tripan dantzan zebilzkidan, ospe handiko idazle baten aurkezpenera ez zelako, lagun on batena baizik: Igor Goikoetxea (Gernika, 1969). 20 urtez baino gehiagotan kazetaritzan fin jardun ostean, literatura munduan murgiltzeko lehen urratsak egin zituen poliki-poliki zenbait lehiaketatan, berauetan fikzioan ere hizkiak lotzeko aparatuko abildadea duela frogatuz.

Horrela, arrakastek animatuta, *La sombra de Dabaibe* liburuaren istorioa gorpuztuz joan zen, amets literario hau errealtate bihurtu arte. Aurkezpenean Igorri hitzeman nion ahalik eta lasterren irakurriko nuela, eta, irakurle, aitortzera natorkizu Neguriko jauregi batean hilketa bortitz batekin hasi eta Atlantikoz bestaldera jauzi egiten duen istorioaren korapiloaren amaiera nekez asma daitekeela azken orrialdeetaraino. Itzela! Tartean ez zaizkio falta ohiko eleberri beltzaren beste osagaiak: intriga, emozioa eta amodioa. Guztiak Dabaiberen gerizpean.

Orain, irakurle, ez duzu zertan fidatu nitaz, baina kasualitateak, jakin-minak edo dena delakoak *La sombra de Dabaibe* eskura jartzen badizu, ez egin muzin tentazioari. Ireki lehen orrialdea! ◀

Leioa

Jolas-parkeak zelan estali?

Partaidetza-prozesua zabaldu dute udal-agintariek, Euskal Etxeen plazako eta Txorierri auzoko jolas-parkeetako zein estalki gura duten erabaki dezaten herritarrek.



Ekainaren 16ra arte dago bozkatzeko aukera.

Jolas-parkeak estaltzeko zer aukera gura duten adierazi ahal izango dute leioaztarrek; izan ere, parte hartzeko prozesua martxan ipini du Udalak. Umeen Kontseiluko kideak lehenengoak izan dira euren botoak ematen. Aurrerantzean, gainontzeko herritarren txanda izango da eta horretarako aukera izango dute hilaren erdialdera arte, hau da: Euskal Etxeen plazako eta Txorierri auzoko jolas-parkeen estalkiak aukeratzeko prozesua ekainaren 16ra arte zabalik egongo da.

Udal-arduradunek zehaztu dutenez, bozkatzeko ezinbestekoa da Leioan erroldatuta egotea. LeioaZabalik Udalaren Gobernu Irekiaren web orrian sartuta, jolas-parke bakoitzeko sei aukera aurkituko dituzte leioazta-

rek; horietatik bana aukeratu eta euren datu pertsonalak batera bidali beharko dituzte. «Nortasun-agiri bat erabiliz, parkeen aukera bati baino gehiagori botoa emanez gero, bozka baliogabea izango da. Bestalde, aukeretako bat behin baino gehiagotan bozkatzeko dutenen kasuan, bakarria modura zenbatuko da», ohartarazi dute agintariek.

Txosten teknikoak batera, bozketaren emaitzek erabiliko dira Txorierri auzoko eta Euskal Etxeen plazako jolas-parkeen estalkia zein izango den erabakitzeko. «Leioaztarrek zer gustu dituzten jakin ahal izango dugu, hurrengo estalketetan kontuan izateko», adierazi du Udalak. Proposamen denak Hirigintza Batzordean aurkeztu zituzten maiatzaren 16an. Ostean, Umeen Kontseiluari helarazi zizkieten, umeen iritzia jakiteko; orain, gainontzeko leioaztarren txanda heldu da. ◀

info+: www.leioazabalik.leioa.net

Arteako langileen egoera okerragoa da, ELAk salatu duenez

Artea merkatalgunean kontzentrazioa egin zuen ELA sindikatuak, maiatzaren 24an, joan den eguazteen. Agerraldi horren bidez, «zenbait hilabetetik hona, enplegatuen lan-baldintzek okerrera jo dutela» salatu zuen sindikatuak. ELAk azaldu duenez, «merkatalguneko kudeatzailerik enplegatuentzako sarbideetako bat murriztu dute, parkingean ez dago toki nahikorik eta daudenak egoera txarrean daude... eta, gainera, bertako enpresariak bultzatu dituzte lan-arloko arauak ez betetzera». Gaur egun, 1.500 langile inguru daude Artean; bertoko arduradunei «enplegatuekiko jarrera aldatzea» eskatu die ELAk. ◀

Jai-batzordeak diruz lagundu gura ditu Esnatu Leioak

Auzoetako jai-batzordeei 150 euroko diru-laguntza eskuratzeko aukera ematea erabaki du Esnatu Leioak. «Baldintza bakarra hau da: egitarauan animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunik ez egotea», talde politikoak gaineratu duenez. Auzoetako jai-batzordeetako kideek egiten duten lan «itzela» goraiatu du Ruben Belandia buru duen taldeak. «Hala ere, ez gatoz bat horietako batzuen burugorkeriagaz; euren egitarauetan mantentzen dituzte idi-probak edo asto-probak», kritikatu dutenez. Abereakaz espektakuluak antolatzen dituzten jai-batzordeek ez dute Esnatu Leioaren laguntzarik izango. ◀

Txorierrik Lamiakori txanda hartuko dio, aste-akabuan

Joan den aste-akabuan ospatu ziren San Maximo jaiak; Txorierri auzoak hartuko dio lekukoa Lamiakori, barikutik aurrera. Hala, lehenengo egunean, kuadrillen-jaitziera egingo dute, txupina jaurti eta berehala. Zapatuan, berriz, herritarren parte-hartzeak garrantzi handia izango du bertako jaietan: besteak beste, herri-krosa, tortilla-txapelketa, igel-toka, txapel-jaurtiketa eta mus-partidak egongo dira. Horrez gainera, Xaiborrek (19:30) eta Basajaun taldeak (22:30) dantzaldiak eskainiko dituzte. Ospakizunak domekan amaituko dira; ekitaldi horien guztien Bifor jai-batzorde herrikoiak antolatzen ditu urtero. ◀

Egitaraua

Ekainak 2, barikua

18:00 Pregoi-irakurketa eta txupinazoa.

18:30 Kuadrillen jaitziera, Zaratambagaz.

Ekainak 3, zapatua

11:00 Herri-krosa.

17:30 Trialsin-erakustaldia, Iñigo Arroyogaz.

19:30 Dantzaldia, Xaiborregaz.

22:30 Dantzaldia, Basajaun taldeagaz.

Ekainak 4, domeka

12:30 Euskal dantzen erakustaldia.

14:00 Herri-bazkaria.

17:00 Leioako Musika Bandaren kontzertua

info+: hiruka.eus/agenda

Tasetarako, proposamenak aurkezteko aukerarik ez

Maiatzaren 25eko osoko bilkuran, hainbat aldaketa egin zituzten udal-tasetan: musika-eskolari, euskaltegiari, kirol-azpiegituri eta kulturako edo gazterriko zerbitzuei dagozkien prezio publikoetan, hainbat moldaketa egin zituzten, besteak beste. Aldaketok maiatzaren 16ko informazio-batzordean aurkeztu zituen Gobernu Taldeak (EAJ eta PSE-EE), udal-batzarrean bozka zitezen. Ostera,

EH Bildu koalizio abertzalearen bozeramaile den Aritz Tellitu haserre agertu zen horiek aurkezteko moduagaz; izan ere, koalizioak azaldu duenez, «Gobernu Taldeak ez zuen inolako eperik ireki, oposizioa taldeek alegazioak aurkeztu zituzten». Hala, EAJren eta PSE-EEren jokabidea «antidemokratikotzat» jo zuen Tellituk. Bere berbetan, «azken hilabeteetan oposizioaren lana mugatzen saiatu dira». ◀



Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

Plentzia

Balea-arrantzaleak, akorduan

Baleak eta Euskal Herria ekitaldia antolatuko du Uribe Kosta BHI institutuak datorren barikuan, ekainaren 2an, Kanadako Placentia herriarekiko senidetzea bultzatzeko.



Irudian, besteak beste, Placentiako udal-arduradunak, Plentziara egindako bisita batean.

Zenbait hilabete darozate Uribe Kosta BHI institutuko ikasleek Plentzia eta Kanadako Placentia herrien arteko senidetzea eta euskal baleazaleen gaia lantzen. Hala, ekimen berria aurkeztuko dute barikuan, ekainaren 2an, Goñi Portalen. Bertan, 17:30etik aurrera, *Placentia - Plentzia. Baleak eta Euskal Herria* ekitaldia egingo dute. David Crestelo Plentziako alkateak emango du Placentiagaz orain arte izandako hartu-emanen berri. Horren ostean, institutuko ikasleek prestatu eta batu dituzten testuak, ideiak, bitxikeriak, datuak eta argazkiak aurkeztuko dituzte. Garrantzi berezia emango diete balea harrapatu ostean abesten zuten kantari eta orduko testamentuei. Ondoren, Ambar elkarteko kideek *Balea gaur egun* hitzaldia emango dute. Azkenik, bertsoz eta musikaz amaituko dute saioa. ◀

Plentziako toponimia inbentariatu eta berreskuratzeko beka

Plentziako Udalak Plentziako toponimiaren agiriak berreskuratzeko eta inbentariatzeko beka-deialdia egin berri du. Interesdunek eskaerak eta dokumentazioa aurkez ditzakete datorren ekainaren 19a arte, udal-erregistroan. Bekaren helburua da idatzizko iturriak aztertzea bertan ageri den udalerriko toponimia jaso, sailkatu eta kokatzeko. Aurreikusitako iturriak dira agiriak, mapak, bibliografia eta bestelakoak. Ikerlariak edo ikerlari-taldeak 13.000 euroko udal-laguntza jasoko du, eta hiru epetan kobratuko da. Ikerketa gauzatzeko epea 2018ko martxoaren 31n amaituko da. Baldintzen artean dago lanerako Euskaltzaindiak inplementatutako datubasea erabili behar izatea. Modu berean, Euskara zinegotziak ikuskatuko du ikerketa. ◀

info+: Plentzia.org

Sopela

Plaza Beltzak egitarau zabala eskainiko du ekainean

Plaza Beltza kultur elkarteak bere lokal berriaren bigarren hilabetearen sartuko da eguen honetan; aurrekoan legez, sozioekonomiara bideratutako ekimenak eta kultur ekitaldiak tartekatuko ditu, egitarau zabalen barruan. Hala, Loiola Ander Deuna kaleko 40. atariko lonjan ekainean egingo duten lehenengo jardura *Politizazioa euskararen irakaskuntzan* berbaldua izango da, eguen honetan, ekainak 1, 19:30ean. Hurrengo eguean eta ordu berean, oster, Etxeko Langileen Elkartek azalduko ditu hitzaldi baten bidez etxeetan beharrean dabilzan emakumeek pairatzen dituzten eskubide-urraketak. Hilabe-

teko azken berbaldua hilaren 22an, eguna ere, egingo dute. Egun horretan, 19:00etatik aurrera, Askapenako zenbait kidek kontatuko dute zein den gaur egun Kurdistango egoera sozopolitikoa. Bestalde, antzerkiak ere lekua izango du Plaza Beltzan: hilaren 9an, barikuan, *Bang!* lana taularatuko dute. Azkenik, musika ez da faltako Larrabasterrako gune alternatiboan. Bertako oholtzatik pasatuko dira Joseba B. Lenoir (ekainaren 2an), Barre Ikara eta Tritón (hilaren 16an), Kinto Contenedor eta Kalera (10ean), Artaza Combat eta Hexen (17an) eta Deceiver (ekainaren 24an). ◀

info+: Plazabeltzainfo.wordpress.com

Burdir Hesira bisita gidatua egin ahal izango da, domekan

Domeka honetan, ekainak 4, eza-gutu ahal izango da Burdir Hesira izeneko defentsa-lerroa izan zena. Sopelako Turismo Bulegoak antolatuta, bisita gidatua egingo dute Gerra Zibilean Eusko Jaurlaritzak eraikitako azpiegitura militarra. Burdir Hesira Bilbo babesteko defentsa nagusia izan zen, 1937ko ekainaren 19an frankistek gaingitu arte. Txangoa doakoa da, baina aurretik izena eman beharra dago. Horretarako, nahikoa izango da turismo-bulegora deitzea edo posta elektronikoren bat igortzea. Txangoa goizeko 09:00etan irtengo da Urko kiroldegiko parkingetik. ◀

info+: turismo@sopela.eus / 944 065 519

Zelai errearen lehia egingo du ekainean jai-batzordeak

Sopelako eta Larrabasterrako Jai Batzordeak antolatuta, zelai errearen txapelketa jokatu da Sopelan ekainean. Festa-eragileak zabaldu duenez, partidak izango dira domeka arratsaldeetan. Hala, honako data hauek aurreikusi dituzte lehiarako: ekainaren 11a, 18a eta 25a. Parte hartu gura duten pertsonen 6 laguneko taldea osatu beharko dute. Izena emateko epemuga ekainaren 4a da. Txapelketan inorkibatze, nahikoa izango da taldea lotzea, talde horri izen bat ematea eta aurreko datuak jai-batzordeari helaraztea. Horretarako, telefono-dei bat egitea edo whatsapp-mezu bat igortzea aukeran utzi dute. ◀

TAPA TABERNA
Santa Eugenia Kalea 13
ERROMA

Irunbat
galp energia
Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 626
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

DIDAK hAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera
· Taldeak, enpresak eta partikularrak
· Eskolaz kanpoko ekintzak
· Maila guztiak
· Ingelesa 3 urtetik aurrera
· Talde txikiak
· Ingalaterran egonaldiak
Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@didakhilton.com

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 33. artikuluan eta Ander Deuna Ikastola Koop. Elkarlearen Estatutu Sozialak 25. artikuluan ezartzen dutenaren arabera, Ander Deuna Ikastola Koop. Elkarleko Artezkanizta Kontseiluek, 2017ko maiatzaren 29an egindako bilan zera erabaki du:

Ohiko Batzar Nagusirako deia

Data: 2017ko ekainaren 15a.

Lekua: Ander Deuna Ikastolako Areto nagusia.

Ordua: 18:00etan lehen deialdian.

18:30ean bigarren deialdian.

GAI ZERREDA:

1. Batzar Nagusiaren hasiera.
2. Batzar Nagusiko Akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
3. 2016. ekitaldiko urteko kontu eta gestio txostenaren aztertzea eta onartzea. Emaizaren aplikazioa. Honekin batera auditoritza txostenaren berrespena.
4. 2017 urteko kudeaketa planari buruzko txostena. Inbertsioak.
5. Bazkide berrientzako 2017-18 ikasturteko derrigorrezko ekarpena eta erabiltzaileen aldiakako kuotak onartzea, horrela badagokio.
6. Kontu-ikuskeriak izendatzea.
7. 2017-18an Ander Deuna Ikastolaren 50. Urteurrena.
8. 2021ean ibilaldia Sopelan Betiko Ikastola eta Ander Deuna Ikastolaren eskutik.
9. Bertaratutakoek euren iritzia agertzeko txanda.



Berango

Ardoaren eguna, domekan

Bertako ekoizleen txakolina dastatzeaz gainera, Imanol Rodriguez Basauri *Mastigane* zenari omenaldia egingo diote jaialdian, 13:30ean.



Lau euroko kopa erosiz gero, gura beste edan eta jan ahal izango da.

Urtero legez, Berangoko ekoizleek Ardo Eguna egingo dute ekainaren 4an, domekan. Aurtengoa XVII. edizioa izango da, eta udalerriko 17 ardogilek etxean egindako 400 txakolin botila baino gehiago eskainiko dizkiete Sabino Arana kalera bertaratzen diren ardozale guztiei.

Eguerditik aurrera ekingo diote festari, 12:00etatik 14:30era, Nagusien Etxeko plazan. Bertan, 14 etxola egongo direla aurreratu dute antolatzaileek: hamabik ardoa eskainiko dute, eta etxola bana egongo da ogia gaztagaz edo txorizoagaz banatzeko. Urteroko ohiturari helduz, ekoizleek prezio ezin hobean salduko dute euren produktua. Izan ere, urtero diseinatzeko kristalezko kopa berezia lau euroan erosita, gura beste ardo eta ahal beste pintxo hartu ahal izango dute bertaratutako denek. Hala bada, zin-

tzurra berton ekoiztako ardoaz bustitzeaz gainera, sabela betetzeko aukera egongo da aste-akabu horretan Berangon. Hortaz, esan beharrik ez dago, urtero legez, ekaineko lehenengo domekan egundoko hitzordua dutela inguruko ardozaleek Berangon.

Mastiganeri gorazarrea

Festaz gainera, ospakizun berezi horren sortzaileetako eta bultzatzaileetako bat gogoan izango dute aurren antolatzaileek. Izan ere, Imanol Rodriguez Basauri *Mastigane* (1953-2017) zenari omenaldia egingo diote eguerdiko 13:30ean, Nagusien Etxeko plazan bertan. Ekitaldi horretan, Fredi Paia bertsolariak berangoztarraren oroimenezko bertsoak kantatuko ditu; gainera, dantzariak ere ikuskizun berezia eskainiko diote Ardo Egunaren bultzatzaileari. *Mastigane* urte honetako otsailean zendu zen. ◀

Sinadura-batzea egingo du Gure Esku Dagok, hilaren 4an

Berangoko Gure Esku Dago taldeak martxari ekin dio. Azaldu dutenez, inguruko herri batzuek batera «eskutik helduta» hasiko dute herri-galdeketa bidea. Horretarako, askotariko eremuetako eta sentsibilitateko berangoztarrek bat egin dute ekimenagaz. Hala, taldea osatu ondoren, gaintzeko herritarrek ere dinamikagaz bat egitea izango da euren helburua. Hori dela eta, erabakitze eskubidearen aldeko galdeketa gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da herritarren eroldaren %10aren aldeotasuna lortzea; horregatik, hilaren 4an, domekan, sinadurak batuko dituzte, Ardo Egunean bertan. Galdeketa azaroan egiteko asmoa dute. ◀

Etxean konposta egiteko materiala banatuko dute, doan

Konposta egiteko beharrezkoak diren materialak banatuko ditu Udalak ortua edo lorategia duten etxebizitzaren artean, doan. Modu horretan, etxeko hondakin organikoak erabiltzea, kalitateko ongarria lor daiteke. Konpostagailuetako bat gura duenak aldeztu aurretik eman beharko du izena. Udal-iturrien arabera, gizarteak hondakinen kudeaketari aurre egitea izango da erronka nagusietako bat.

Etxeko hondakinen materia organikoa erabiltzea konposta egitea, herritarren hondakinen prebentziorako eta ingurumena zaintzeko ekintza oso baliagarria eta garrantzitsua dela uste du Udalak. ◀

izena emateko: agenda21.berango@uribekosta.org

Sahararen aldeko oasi musikala egingo dute



Endika Basterretxeak eta Leire Gotik osatzen dute Elay taldea. © ELEY

Kontzertuan lortutako dirua Saharako errefuxiatuen eremuan dagoen Bucraan herrira bidaliko dute, Udalak han garatu duen proiektua finantzatzeko.

Sahararen aldeko kontzertua egingo dute datorren ekainaren 2an, barikuan, Berango Antzokian. Bertan parte hartuko dute Eley eta Bart...Sax! musika taldeek, 20:00etatik aurrera. Sarrera 3 euroan salduko da, eta lortutako dirua Berangoko Udalak Saharako errefuxiatuen eremuan dagoen Bucraan herrian garatu duen proiektua finantzatzera bi-

deratuko dute. Endika Basterretxeak eta Leire Gotik osatutako taldea da Eley. Berangoko kontzertuan euren azkenengo lana aurkeztuko dute: *Primera Estación*. Bikote horren ostean, Durangoko Musika Eskolako ikasleek osatutako Bart...Sax! taldea taularatu da, Itziar Castrillo irakaslearen agindupean aretoa hirurogeiko hamarkadako doinuez betetzeko. ◀

Ibilbideak eta erakustaldiak, Kirol Egunaren harira

Kirol Eguna ospatuko dute zapa-tuan, ekainaren 3an, Berangon. Egun osoan, askotariko jarduerak egingo dituzte, udalerriko hainbat eremutan. Hala, goizeko 10:00etan udalerritik martxa egingo dute. Horretarako, gura duenak Nagusien Etxera hurbildu beharko du, bertatik hasiko baita ibilbidea. Ordu bi beranduago, udalerriko neska-mutilen kirol-era-

kustaldia egongo da aukeran. Horretarako hitzordua eguerdiko 12:00etan jarri dute, Kirolgunean bertan. Azkenik, ikasturtean ikasitako dena publikoari erakutsiko diete ikasleek, erakustaldi baten bitartez. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, Santa Ana auzoan dagoen Berango Antzokian. Hala, kirola maitatzen badute zertaz gozatu zapa-tuan, egun osoan. ◀

Gorliz

«Hasieran, lotsagatik ez genuen elkarregaz euskaraz egiten»

Gorlizko udaletxeko lan-eremuan euskararen erabilera areagotzeko saioak zuzentzen ditu Juanjo Perez Martinez de Lahidalgak, Elhuyar Aholkularitzako kideak. Bertako 9 beharginek parte hartzen dute egitasmo horretan.



Udaletxeko bederatzi langilek parte hartzen dute trebakuntza-saio horietan (argazkian ez dira denak agertzen).

TESTUA: IKER RINCON MORENO
ARGAZKIA: HODEI TORRES

Lan-eremuan euskararen erabilera areagotzeko saioetan parte hartzen dabiltza Gorlizko udaletxeko langileak. Juanjo Perez Martinez de Lahidalgak Elhuyar Aholkularitzako kideak gidatuta, udaletxeko idazkaritzako, herritarren harrera-zerbitzuko eta hirigintzako arloetan diharduten 9 langilek parte hartzen dute egitasmoan. Horren helburuak dira euren arteko harremanak euskalduntzea, taldea kohesionatzea eta lantokia ikaske-tagunetzat hartzea, besteak beste.

Euskaraz berba egiteko trebakuntza-saioak egiten zabiltzate udaletxean. Zertan datza ekimena?

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eskatutako programa bat da. Elhuyarrekin harremanetan jarri ziren, euskaraz hitz egiteko gaitasuna duen talde

polit bat bazegoelako, baina ez zutelako askorik erabiltzen, toki askotan bezala. Ekimenaren bidez, horri denari buelta eman nahi diogu, metodologia eta saio batzuk erabiliz. Helburua da hizkuntza-ohituren inguruko gogoeta eragitea, norberarengan hausnarketa bat egiteko. Taldean egiten dugu lan.

Eta zuen iritziz, zelakoa izan da orain arteko esperientzia?

Oso ona. Lehen batzuekin bakarrik egiten genuen euskaraz; batzuetan, bai, eta, beste batzuetan, ez... Orain denon artean beti euskaraz egiten dugu.

Zer zailtasun ikusten dituzue euskararen erabilera bermatzeko?

Ohitura, batez ere. Batzuen kasuan, beldurragatik edo lotsagatik ez zuten euskaraz egiten. Beste batzuek, ordea, ohitura faltagatik ez genuen erabiltzen, nahiz eta jakin aurrean genuenak euskaraz bazekiela. Orain, hori

dena aldatu egin da. Kalean, baina, oraindik ere, kosta egiten zaigu euskaraz bizitzea. Hori dena lanorduen barruan egiten dugu. Hala eta guztiz ere,

“Honen helburua da hizkuntza-ohituren inguruko gogoeta bat eragitea”

batzuekin ohitura hartu dugu; baina, kosta egiten zaigu hori kalera ateratzea. Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, berriz, herritar bat euskaraz galdegin ez etorri gero, beti hizkuntza horretan erantzuten diogu.

Zein da Gorlizko udaletxeko hizkuntza-errealitatea?

Udaletxeko langile guztiok parte hartzen dugu ekimen honetan, batek izan

ezik, ez dakielako euskaraz. Berton gaudenok badakigu euskaraz, baina ez genuen erabiltzen, lehen esandakoagatik. Hala ere, uste dugu, hemen-dik aurrera, guztion artean erabiltzea lortuko dugula. Batzuek maila baxuagoa izan arren, ulertu ulertzen dute, eta berba egiteko gaitasuna badute. Orain arte, kasu horietan, gaztelaniara jotzen genuen elkarregaz berba egiteko; baina, trebakuntza-saio hauen ondorioz, joera hori baztertzea lortu dugu.

Horretarako, zer motatako dinamikak edo metodologia erabili dituzue?

Hiru orduko 10 saio egingo ditugu; orain arte zazpi egin ditugu, eta irailean eta urrian, gainerako hiruak egingo ditugu. Bigarrenetik aurrera, Eusle metodologia inklusiboa erabiltzen hasi ginen. Soziolinguistika Klusterrak garatu zuen, hainbat aholkulariarekin eta enpresarekin batera, hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Oso emaitza onak ematen ditu. Orain, jada, ez da teoria, praktika baizik. Horretarako, joko bat izango balitz bezala, dinamika honetan aplikatu dugu. Juanjo hamabost egunean behin etortzen da saioak ematera, baina egunero erabiltzen dugu dinamika hori; langileok garatu behar dugu. Hala, txandaka, bi pertsonak konpromisoa hartzen dute udaletxean sartzen direnetik halabeharrez euskaraz hitz egiteko. Besteek nahi duten hizkuntzan berba egin dezakete, baina eurek euskarara jo behar dute, betiere aurrez aurre hori dakien norbait dagoenean. Hala, emaitza oso onak eman dituela ikusi dugu; nolabaiteko erantzukizuna eskatzen du, zure betebeharra delako eta bete egin behar duzulako.

Zuen ustez beharrezkoa da eraikin publiko batean euskara erabiltzea?

Bai, noski! ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902.103.763

☞ kartelgintza



☞ inprimategia



☞ kopisteria



Lemoiz

Basorda berreskuratu

Kala lehengoratzea eta lurrei erabilera publikoa ematea gura du Eguzki talde ekologistak.

Lemoizko zentral nuklearreko lurrei «historiarekin bat datozen erabilera» ematea eskatu du Eguzki talde ekologistak. Horretarako, Basorda kala ahal den neurrian lehengoratzea eta bertan parke publiko bat egitea proposatu dute, «beharbada, memoria-leku gisa». Eguzkik ez du beste erabilerarik baztertzen, «baina betiere lehengoratzearekin eta erabilera publikoarekin bateragarria den heinean».

Lemoizko zentralaren irekiera bertan behera geratu zen 1984ko moratoria edo luzamendu nuklearraren ondorioz. Orduan, hiru konpainia elektrikori (tartean, Iberduerori) zentral horietan 2.300 milioi euroko inbertsioa egin izana aitortu zien Espainiako Estatuak, eta, inbertsio horren kalte-ordain gisa, argindarraren ordain-agirietan hainbesteko bat gehiago kobratzeko baimena eman zien. «Lemoizko instalazioak geure patri-



Zentralaren irekiera bertan behera geratu zen 1984ko luzamendu nuklearraren ondorioz.

katik ordaindu ditugu, ederki ordaindu, gainera», deitoratu dute. EAJk eta PPK egindako akordioaren ondorioz, euskal erakundeek esku egongo dira laster zentralak dituen lur-eremuak. Horren harira, Eusko Jaurlaritzak instalazio horiek denak bere eginez gero, gaizki egingo lukeela uste du Eguzkik. «Hainbeste urte pasa eta gero EAJk gai hau horrelako akordio batean sartu izanak Eusko Jaurlaritzak buruan

proiektu zehatzen bat duela aditzera ematen du», deitoratu dute ekologistek. Izan ere, azaldu dute aste honetan bertan zenbait komunikabidek Basordan akuikultura-proiektu bat eta Bimop kokatzeko aukera aipatu dutela.

Eguzkik ez ditu proiektu zehatz horiek baloratu, baina berretsi gura du zentrolean edozer egiten dela ere, kala lehengoratzea eta erabilera publikoa ematea beharrezkoa litzatekeela. ◀

Uribe Kosta



Sehaskak jarri zituzten Leioan eta Getxon.

Abegi-familiak beharrezkoak direla ohartarazi dute

Familia-harreraren inguruko kanpaina berria martxan ipini du Bizkaiko Foru Aldundiak, «Benetan ez zaizula sartzen sehaska bat etxean?» goiburupean. Hala, sehaskak ipini zituzten joan den egunean, maiatzaren 25ean, Getxon eta Leioan. Kanpainaren helburua da harrera-etxe baten premia duten umeen pre-

miazko egoera helaraztea auzokide denei. Harrera-egoeran dauden 314 adingabe bizi dira Bizkaian, eta, gaur egun, 450 neska-mutil dira harrera-familia behar dutenak. Harrera-familien sarean parte hartzeko interesa duten pertsonak balorazio eta prestakuntza prozesua gainditu beharko dute. ◀

info+: 944 470 737

Prestakuntzarako 245.000 euroko bekak emango dituzte

Bizkaiko Foru Aldundiak 245.000 Euroko partida bat onartu du atzerrian nazioarteko zentroetan espezializazioko ikasketak egin gura dituzten gazteen prestakuntza profesionalerako. Gradu edo lizentziaturako unibertsitate-ikasketak 2014/2015, 2015/2016 edo 2016/2017 ikasturteetan amaitu dituztenek aukera izango dute diru-laguntza hori lortzeko (8.000 euroraino). Horretarako, espedientearen edo karrera amaierako notan gutxienez ere «oso ondo» izan behar dute, edo Bizkaia Talent ekimenaren Talentia programan parte hartu behar izan dute. Lanbide-hobekuntzarako ikastaroek gutxienez ere 6 hilabeteko iraupena izango dute, eta prestigioa duen atzerriko unibertsitate edo nazioarteko zentro batean egin ahal izango dira edo, bestela, EAEko unibertsitate batetik konbinazioa eginda. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 1ean hasiko da, eta irailaren 29ra arte eskatu ahal izango dira. ◀



Gure esku

**ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA**
Legelaria

Erabaki dut, badakit erabakitzen

Maiatzaren 7an Uribe Kostako hainbat herritarrek bezala modu librean erabaki nuen Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruz, normaltasun osoz eta jai giroan. Etxeko hiru belaunaldiak elkarrekin erabaki genuen, norberak bere oroimenak, itxaropenak eta ilusioak gutun azalean sartuta.

Beraz, orain badakit zer den erabakitzea eta benetan oso esperientzia ederra da. Maiatzaren 7ko egun horretan hainbat burutazio eta sentimendu izan nituen nahas-mahasean. Ulertu nuen zer sentituko zuten gizonak, aberats zein langile, bozkatzeko lortu zutenean, errege eta nobleziaren pribilegioak bazter utzita. Ulertu nuen emakumeek hainbat borroka eta gero, gizonekin batera bozka ematerakoan sentitu zuten askatasun eta duintasuna. Ulertu nuen beltzek zuriekin batera bozka eman zuten uneko adorea eta determinazioa. Haiek ere, beren itxaropen eta ilusioei bide eman zieten bozka bidez, orduan pentsaezinak zirenak. Guk ere, euskal herritar gisa bozkatu dugu lehen aldiz, gurasoekin batera, bikotearekin batera eta seme-alabekin batera. Ez nuke horrelako esperientzia beste baten esku utziko sekula.

Udazkenean Uribe Kostako beste herri batzuetan ere (Getxo, Berango, Leioa eta beste batzuk ere agian, hala erabakiz gero) galdetarako egingo dira. Ordurako, Euskal Herriko udalen laurdenak (% 25) jadanik erabakitzeke ariketak eginak izango dituzte eta giza katea osatu genuen 150.000 herritar kopuru hura aise gaindituta izango dugu.

Herritarrok ari gara ozen eta dotore adierazten erabakitzeke dugun borondatea eta prestasuna. Erabakitzeke bidean gaude, erabakitzeke behar ditugun jarrerak eta gaitasunak bereganatzen ari gara. Erabakitzeke gai den herriak etorkizuna bere esku du. ◀



Hortzmuga taldeak *Femmes* antzezlan eskainiko du, larunbat honetan, ekainaren 3an.

Hurrengo ekitaldiak

Ekainak 2, barikua

19:00 *Mamu txikiak* antzezlan, Oihulari Clown taldeagaz, Areetako Eskola plazan. Berba barik. Sarrera, doan.

Ekainak 3, zapatua

12:00 Zirku-tailerra, Areetako Eskola plazan. 7 eta 11 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Izen-ematea: 944 649 133

19:00 *Femmes* antzezlan, Hortzmuga taldeagaz, Areetako Eskola plazan. Berba barik. Sarrera, doan.

21:00 *A cal y canto* antzezlan, Trapu Zaharra taldeagaz, Areetako Eskola plazan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Ekainak 4, domeka

12:00 *Euskal ipuinak* antzezlan, Antzezkiuna taldeagaz, Areetako Eskola plazan. Euskaraz. Sarrera, doan.

18:00 *Bidaibizitzen* antzezlan, Zirkun Zirko taldeagaz, Areetako Eskola plazan. Euskaraz. Sarrera, doan.

Antzerkia, kalera!

Kale-antzerkia bultzatuz jardunaldien barruan, antzerki-saioak eta zirku-tailerra egongo dira, Getxoko hainbat parketan eta plazatan, ekainaren 2tik aurrera.

E kainaren 2tik uztailearen 8ra arte, zazpi kale-ikuskizun egongo dira Getxoko hainbat parketan eta plazatan; sarre- ra, doan. Lehenengo hiru egunetan, Areetako Eskola plazan egongo da antzerkiaz gozatzeko aukera: *Mamu txikiak* (Oihulari Clown), *Femmes* (Hortzmuga), *A cal y canto* (Trapu Zaharra),

Euskal ipuinak (Antzezkiuna) eta *Bidaibizitzen* (Zirkun Zirko) antzezlanak egongo dira ikusgai. Bestalde, ekainaren 25ean, *Sardina freskue* ikuskizuna eskainiko du Eidabe taldeak, Algotako Zubilleta auzoko zelaian. Uztailaren 8an, berriz, Zirkun Zirkok *Tina* antzezlan aurkeztuko du, Neguriko Gernika parkean. Emanaldi gehienak

berba barik edo euskaraz izango dira; *A cal y canto* (Trapu Zaharra) izango da gaztelaniazko saio bakarra.

Horrez gainera, Areetako Eskola plazan, zirku-tailerra egingo dute 12:00etan, bariku honetan, ekainaren 2an. 7 eta 11 urte arteko umei eskainitako jarduera da, euskaraz. Itzubaltzeta/Romoko kultur etxean izena eman beharko dute parte hartu gura duten neska-mutilek, edo, bestela, 944 649 133 telefono-zenbakira deitu. Getxoko Kultur Etxeko arduradunek zehaztu dutenez, ikastaroa egiteko toki-ko-

purua mugatua da; 25 hurrek baino ezin izango dute parte hartu zirku-tailerrean.

Jardunaldiak abiatuko dituen antzezlanari dagokionez, lau munstro klasiko dira *Mamu txikiak* (Oihulari Clown) ikuskizunaren protagonista: Patxistein, Burubiltxo (bururik gabeko gizona), Piztitxu (andre-otsoa) eta Bikoitz (burubikoa); laurak ere umeak dira. Amonatxo sorginagaz aterako dira pasieran, eta edozerk ipiniko ditu beldurak airean. Etxeko denok ondo pasatzeko moduko ikuskizuna da. ◀

Antzerkia eta afaria, Kalezulo gaztetxean

Aurrekoetan, musikariak gonbidatu izan dituzte Erandio-ko Kalezulo gaztetxeko afari akustikoetara; oraingo honetan, ordea, antzerkia izango dute jardueran parte hartu gura dutenek. Hala, Atara Zarata Durangoko taldeak *Eingo al deu?* antzezlan aurkeztuko du, ekainaren 9an, barikuan. Hitzordua 20:00etan ipini dute. Euskaldunon eta sexuaren inguruko zazpi esketek osatzen dute *Eingo al deu?* obra. Euskaldun berri baten eta euskaldun zahar baten arteko harremanean hizkuntzari lotuta sortzen diren egoe- rak, tradizioak euskaldunongan duen eragina, maite-afera birtualak, lagun



Sei lagun igoko dira agertokira.

baten sexualitateari buruz kuadrilla batek duen berbaldia... dira obrako egoeretako batzuk. Afariari dagokio- nez, 22:00etan izango da; aurretik, 20:00etan, poteoa egongo da, Kalezu- lo gaztetxean bertan. ◀


Él nunca me pegó dokumentalaren proiektzioa eta berbaldia, Danontzat gaztetxean

Irantzu Varela kazetariak egindako *Él nunca me pegó* dokumentala Plentziako Danontzat gaztetxean proiektatu dute, gaur, eguena, ekainaren 1ean. Emanaldia 19:30ean izango da; sarrera doan. Horren ostean, Varela berak berbaldia emango du. Ikus-entzunezko lan horiek 20 minutu dauzka. Bertan, hiru emakumeren testigantzak jasotzen dira; emakume horiek lehen pertsonan kontaktzen dute zelan bizi izan duten eta gaingitu duten bikote heterosexualek jasandako indarkeria psikologikoa. Irantzu Varela ikaskuntzarako, sorkuntzarako eta ekintzarako Faktoria Lila gunen feministako koordinatzailea da. ◀

Jonh Abercrombie gitarra-maisuaren orde, Cristian Scott tronpetistak joko du, jazzaldian

Christian Scott (1983, New Orleans) tronpetista gazteak joko du Getxoko Jazzaldian, ekainaren 29an, egue- nean. Scott Pharoah Sanders saxo-jo- learen (1940, Little Rock; Arkansas) orde arituko da; izan ere, Getxoko Kultur Etxeak jakinarazi duenez, Pharoah Sandersek bertan behera utzi du egun horretan eskaini behar zuen saioa, «antolatzaileenak ez diren arazoak tarteko». Hain zuzen ere, apirilaren akabuan, Sandersegaz ordezkatu behar izan zuten John Abercrombie (1944; Port Chester, Nueva York); gitarra-maisuak bertan behera utzi zuen Getxoko Jazzaldiko saioa, osasun arazoak direla eta. ◀

Bere taldeagaz batera, *Epilogo* bat diskoa plazaratu zuen Anari Alberdik, 2016an. GOIENA



GETXO

Berbaldiagaz batera, abestiak joko ditu Anarik

Ikasturtearen akaburako, inoiz egin ez duen ekitaldia antolatuko du Egi- zu elkarteak: urtero, Euskal Herriko abeslari bat gonbidatu eta beragaz berbaldi irekia egin gura dute; galde- ren artean, bizpahiru abesti joko ditu kantariak. Horren bitartez, «musikari ere bere lekua» egin nahi diote, eus- kararen munduan. Oraingo honetan, Anari abeslari azkoitiarrak Algortako

Azebarri kultur elkartea bisitatuko du, ekainaren 8an, eguaztenean. Hi- tzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Haziak gazte antolakunde fe- ministagaz antolatu du ekitaldia Egi- zu euskara-taldeak.

Ana Rita Alberdi Santesteban (Az- koitia, 1970) abeslaria 1997an hasi zen musika-munduan, Anari ezizenagaz; orduz geroztik, bakarkako bost dis-

ko plazaratu ditu, eta beste bat Pet- ti musikari nafarragaz elkarlanean. Doinu goibel eta bakartiak, berba bi- luziak eta atmosfera ezero-soak dara- biltza, eta oso kritika onak jaso ditu. Hasieran, Psych Out taldean bateria jo zuen Anarik. Akauzazte taldeko ki- deek ere osatzen zuten taldea; inge- lesezt kantatzen zuten. Gero etorri zen bakarkako ibilbidea, euskaraz. ◀

GETXO

Itsas mundura hurbiltzeko, Talka Eguna Itzubaltzetan

Aurton, itsas mundua herrira hurre- ratzeko Talka Eguna antolatuko du Itzubaltzeta/Romoko Branka kultur elkarteak; ekainaren 3an ipini dute hi- tzordua, zapatuan. Hala, goizean goize- tik, Itzubaltzeta auzoa itsas giroan mur- gilduko da, sukaldaritza-txapelketagaz eta askotariko ekimenakaz. Herri-baz- karia ere egingo dute, Gobelondon. ◀



BERANGO

Mastigane akorduan izango dute Ardo Egunean, domekan

Berangoko ekoizleek Ardo Egu- na egingo dute domeka honetan, ekainaren 4an: 17 ardogilek etxean egindako 426 txakolin botila eman- go dizkiete bertaratuko diren ardo- zaleei, 12:00etatik 14:30era, Sabi- no Arana kaleko Nagusien Etxeko plazan. Gainera, Imanol Rodriguez Basauri *Mastigane* zenari omenal- dia egingo diote. ◀

ANTZERKIA

EKAINAK 2, BARIKUA

Mamu txikiak

19:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo

Oihulari Clown taldeagaz. Berba barik. Doan.

EKAINAK 3, ZAPATUA

Femmes

19:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo

Hortzmuga taldeagaz. Berba barik. Doan.

A cal y canto

21:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo

Trapu Zaharra taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

IBILALDIAK

EKAINAK 3 ETA 4

Literatura-ibilbide gidatua:

Ramiro Pinilla

10:30-13:30 | Ormaza parkea | Getxo

Gaztelaniaz. Doan. Informazioa eta

izen-ematea: 944 910 800.

EKAINAK 4, DOMEKA

Burdin Hesira bisita gidatua

09:00 | Urko kiroldegiko parkinga | Sopela

Doan. Izen-ematea: turismo@sopela.eus

JAIAK

EKAINAK 4, DOMEKA

Musika-entzunaldia eta berbaldia

Gertuko auzokideen elkarteak musika klasikoko entzunaldia prestatuko du eguen honetan, ekainaren 1ean. Berbaldia ere egingo dute, Dvořák musika-gilearen gainekoa. Hitzordua 19:30ean ipini dute, antzinako liburutegian. ◀

Antzerkia egongo da, Sertutxena eraikinean

Gorlizko TeatrA taldeak *Zergatik ez? Hargatik / Porque no* antzezlan eskainiko du bariku honetan, ekainaren 2an. Emanaldia 19:30ean izango da, Sertutxena eraikineko erakusketa-aretoan; eta sartzea doakoa izango da. ◀

Lasto-altxatzaile bizkaitarren lehia

Sopelako udaletxearen aurreko plazan egingo dute aurtengo Bizkaiko lasto-altxatzearen txapelketa, domeka honetan, ekainaren 4an. Proba 13:00etan hasiko da; lurraldeko lasto-altxatzailerik onenek hartuko dute parte. ◀



Sabino Arana Fundazioak Leyre Arrieta eta Miren Barandiaran historialari gipuzkoarrei egindako eskariaren emaitza da erakusketa.

¡Nunca más! erakusketa, Erandion

Euskal Abertzaletasunaren Museoak *¡Nunca más! Imágenes de guerra (1936-1939)* izeneko erakusketa zabaldu du, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Denera, 22 horma-irudik eta hainbat objektuk (presoen zerrendak, gutunak, isunak eta abar) osatzen dute. ◀

Noiz: Ekainaren 9ra arte.
Orduategia: 08:00-22:00
Non: Josu Murueta kultur etxean (Astrabudua).
Sarrera: Doan.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Euskal ipuinak

12:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Antzez kizuna taldeagaz. Euskaraz. Doan.

Bidai bizitzen

18:00 | Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Zirkun Zirko taldeagaz. Euskaraz. Doan.

AZOKAK

EKAINAK 3, ZAPATUA

Bertoko ekoizleen azoka

10:00 | Ibarreta plaza | Gorliz
Hainbat postu egongo dira.

Ekoazoka

12:00-13:30 | Euskal Etheen plaza II | Leioa
Herrigunek antolatuta. Erabiltzen ez dituzten objektuak eroan ahal izango dituzte herritarrek.

BERBALDIAK

EKAINAK 4, EGUENA

Él nunca me pegó

19:30 | Danontzat gaztetxea | Plentzia

Dokumentalaren ostean, indarkeria matxistaz berba egingo du Irantzu Varelak. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Politizazioa euskararen irakaskuntzan

19:30 | Plaza Beltza kulturagunea | Sopela
Euskaraz. Sarrera, doan.

EKAINAK 2, BARIKUA

Placentia-Plentzia. Baleak eta Euskal Herria egitasmoa

17:30 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Besteak beste, Uribe Kosta institutuko ikasleek eta David Crestelo alkateak berba egingo dute, aurkezpenean. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan.

DANTZA

EKAINAK 3, ZAPATUA

Dantzari Txiki Eguna

10:00 | Ibarreta plaza | Gorliz
Euskal dantzen erakustaldia egongo da.

DEIALDIAK

EKAINAK 5, ASTELEHENA

JaKietan Baserritik egitasmoaren batzar irekia

19:30 | Azebarri kulturagunea | Getxo
Eskualdeko hainbat ekoizlegaz batuko dira; Egun Agroekologikoa egin gura dute herriko jaietan. Euskaraz. Sarrera, doan.

EKAINAK 3, ZAPATUA

Bizkaiko Nagusien Eguna

10:00-20:00 | Udaletxeko plaza | Sopela
Nekazaritza-produktuen erakusketa eta dastaketa, bisita gidatua kostaldetik, pilota-partidak, bazkaria eta dantzaldia egongo dira. Informazio gehiago: www.nagusiak.org

Ikasturte-akabuko emanaldia

18:30 | Berango Antzokia | Berango

Kultur etxeko ikastaroetako ikasleek parte hartuko dute, eta emakumeen elkarteko zumba-ikastarokoek ere bai. Sarrera, doan.

KIROLAK

EKAINAK 3, ZAPATUA

Kirol Eguna

10:00 | Nagusien etxea | Berango

Hasteko, ibilaldia egingo dute udalerritik. Erakustaldiak ere egongo dira, kirolgunean (12:00) eta Berango Antzokian (18:30).

Kirolari Ateak Zabalik

10:00 | Eskola eta kiroldegia | Gorliz

Irristaketa (10:00-11:00), spinning-a (11:30-12:30), zumba (18:30-19:30) eta pilatesa (19:30-20:30) egingo dituzte. Doan.

EKAINAK 4, DOMEKA

Sortarazi elkartearen aldeko igeriketa-zeharkaldia

12:00 | Kirol portua | Getxo

Izen-ematea ekainaren 2ra arte egin daiteke. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute; 14 urtetik beherakoentzat doakoa izango da. Informazio gehiago: info@theswimmet.com

LEHIAKETAK

EKAINAREN 2TIK 11RA ARTE

Erandio Pintxotan

Altaga eta Astrabuduko tabernak | Erandio

Barikuan (12:00-15:30), zapatuan (19:00-22:00) eta domekan (12:00-15:30) egingo dute pintxo-lehiaketa. Txartela betetzen dutenek 100 euroko hiru sariren zozketan parte hartuko dute. Pintxoak 1,30 euroan egongo dira.

MUSIKA

EKAINAK 2, BARIKUA

Sahararen aldeko kontzertua

20:00 | Berango Antzokia | Berango

Bart... Saxl eta Eley taldeek joko dute. Diruagaz berrikuntzak egingo dituzte Aljeriako Bucraa herrixkako adinekoen egoitzan. Sarrera: 3 euro.

Joseba B. Lenoir

21:00 | Plaza Beltza kulturagunea | Sopela
Sarrera, doan.



Lemoizen (astelehenetan), Plentzian (eguenetan), Urdulizen (barikuetan), Gorkizen (zapatuetan) eta Sopelan (domeketan) antolatzen dituzte jolasak.

Ekitaldiak

Munduko jolasak

Ekainak 1, eguna

17:30-19:30 Plentziako Ontziola plaza.

Ekainak 2, barikua

17:30-19:30 Urdulizko Antsonekoa plaza.

Ekainak 3, zapatua

12:00-14:00 Gorkizko Ibarreta plaza.

Ekainak 4, domeka

12:00-14:00 Sopelako Jauregizar plaza.

Ilusio optikoa

Ekainak 5, astelehena

17:00-19:00 Lemoizko Urizarreko eskola.

Ekainak 8, eguna

17:30-19:30 Plentziako Ontziola plaza.

Ekainak 9, barikua

17:30-19:30 Urdulizko Antsonekoa plaza.

Ekainak 10, zapatua

12:00-14:00 Gorkizko Ibarreta plaza.

Ekainak 11, domeka

12:00-14:00 Sopelako Jauregizar plaza.

Euskaraz Olgetan, bigarren txanpa

Daborduko ekaineko jarduerak prest dituzte: Munduko Jolasak, Ilusio optikoa, Euskal baleontzia, Akelarre jaia...

Umeak eta gurasoak elkarre-gaz euskaraz jolastea da Euskaraz Olgetan egitasmoaren helburua, «jolasa oinarritzat hartuta, familiaretan euskararen erabiler eta transmisioa sustatzeko asmoz».

Aurtengo eskaintzaren lehenengo zatia joan den hilean izan zen; horren bigarren txanpa, ekainari dagokiona, hilaren lehenengoan abiaraziko dute. Ostera, bigarren zatia, udako oporraldiaren ostean egingo dute, irailean eta urrian.

Mankomunitaren Euskara Zerbitzuak antolatzen du Euskaraz Olgetan, eta Lemoizen, Plentzian, Urdulizen, Gorkizen eta Sopelan egiten dituzte jarduerak. Plentziako ekitaldiak eguenetan dira, ekainaren 1ean, 8an, 15ean, 22an eta 29an, Ontziola plazan (euria bada, pilotalekuan); Urdulizko hitzorduak, barikuetan, hilaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, Antsonekoa plazan;

Gorkizen zapatuetan lotuko dira, hilaren 3an, 10ean, 17an, 24an eta uztailaren 1ean, Ibarreta plazan (euria bada, pilotalekuan); sopoloztarrak, domeketan, hilaren 4an, 11n, 18an, 25ean eta uztailaren 2an, Jauregizar plazan (euria bada, Kurtzion); eta Lemoizkoak, astelehenetan, hilaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, Urizarreko eskolan (euria bada, pilotalekuan). ◀

Hitza emanda



Mari

*Akarlandan Señora,
Anbotoko Dama,
urrezko orrazia
eskuman daukana,
bestean ispilua,
ilargia dana,
guztion ama eta
bakoitzaren Ama!*



**FREDI
PAIA RUIZ**
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Ramiro Pinillaz oroitzeko ibilaldiak antolatuko dituzte Getxon, ekainaren 3an eta 4an

Arrigunaga, Andra Mari, Benta, Galea, hilerria, Benantzio... bere literaturara eroan zituen Ramiro Pinillak (Bilbo, 1923-Getxo, 2014). Bere lanetan irudikatzen diren benetako lekuak eta inguruak oinez ezagutzeko, eta idazle getxoztarrari gorazarre egiteko asmoz, literatura-ibilaldi gidatuak antolatzen dituzte, harentzat esanguratsuak ziren datetan. Berbarako, ekainaren 3an hasi zuen Pinillak *Verdes Valles, Colinas Rojas*, gerora hiru liburuz osatutako bilduma. Hala, horren harira, zapatu eta domeka honetan egingo dituzte ibilaldiak; Ormaza parketik (Bidezabal) abiatuko dira, 10:30ean, ekainaren 3an eta 4an. Gidariak gaztelaniaz azalduko ditu ezagutuko dituzten lekuei lotutako eta Pinillak sortutako mitoak, kondairak, pertsonaiak eta istorioak. Ibilaldiak doakoak dira, baina, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa da. ◀

izen-ematea eta info+: 944 910 800

D'zanp! txapelketan, saria, erandioztarrentzat



Dantza modernoa eta kaleko dantza saritzen ditu D'zanp! txapelketak. © D'ZANP!

Erandioko CDART dantza-eskolako hainbat ikaslek hirugarren saria irabazi zuten D'zanp! txapelketan, Bilboko Euskalduna Jauregian, maiatz hasieran. Amaia Urkijo irakasleak CDARTeko dantzariakaz eta beste eskola batzuetako kideakaz osatutako talde bi aurkeztu zituen:

Diuki (15-17 urtekoak) eta D-na! (9-12 urtekoak). Hala, gazteenek lortu zuten saria; hau da, 9 urteko Ainara Millek eta Urko Seoanek. Ninja dortokaz jantzita erakutsi zuten euren abilezia, eta lagun izan zituzten 12 urteko Araitx Miguel, Maitane Velez, Gaizka Suarez, Galder Ezturo eta Paula Ramos. ◀

«Hiztun zaharrek eta berriak bidelagunak dira»



Arrate Illaro Etxebarria algortarrak Euskal Herri osoan mintzapraktika-egitasmoak koordinatzen ditu, Euskaldunon Topagunearen bitartez.

Mintzapraktika-egitasmoetan sei mila lagunek parte hartzen dute, Euskal Herri osoan. Horiek Derion egingo dute Mintza Eguna, zapatu honetan, ekainaren 3an.

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

E kainaren 3an Derio izango da Euskal Herriko mintzalagunen, mintzakideen edo berbalagunen topagunea; lagunartean euskaraz berba egiteko eta ondo pasatzeko sekulako plana prestatu dute bertan. Euskaltzaleon Topagunean mintzalagun-egitasmoez arduratzten den Arrate Illaro Etxebarria algortarrak eman dizkigu zapatu honetako Mintza Egunaren eta mintzapraktika-taldeen berri.

Zer helburu dauka Mintza Egunak?

Mintza Eguna sortu zen mintzapraktika-egitasmoetan ari diren mintzalagunen, berbalagunen eta abarren arteko elkargunea izateko asmoz. Alde batetik, mintzalagunek gainerako herrietako parte-hartzaileak ezagutzen dituzte. Eta, bestetik, ikasturtearen bukaeran, udaren atsedenaldiaren aurretik, ekintza osagarria egiten dute, ikasturteari amaiera ona emateko. Gainera, azken urteetan saiatu izan gara egunaren antolaketan tokiko berbalagunak eta gainerako euskaltzaleak elkarrekin jaia antola dezaten.

Bide batez, gainontzeko euskaltzaleen sare horretako kide bihurtzen dira berbalagun horiek.

Zein da mintzapraktikako egitasmo horien mamia?

Mintzapraktikako egitasmoetan euskaraz praktikatu behar duten kideak

“Batzuk beste indarra ematen diete euskaraz aritzeko eta bide horretatik jarraitzeko”

egunero euskaraz bizi direnekin edo euskaraz ohitura daukaten horiekin batzen dira; bospasei laguneko taldeak izaten dira eta, asteen, ordu batez geratzen dira, aisialdian eta euren borondatez euskaraz aritzeko. Eurek aukeratzen dute zeri buruz hitz egin; baina, aisialdian, mugarik gabe eta arau zorrotzik gabe.

Bi motatako kideak bereiz ditzakegu.

Bai. Bi profil daude. Alde batetik, bidelariak daude; bidea egiten ari diren horiek. Euskaltegitik ateratako euskal-

dun berriak, harreman-sare euskalduna osatu nahi dutenak, guraso bihurtzean euskarara berriro bueltatu nahi dutenak... izan daitezke. Praktikatzeko beharra daukate, arrazoi batengatik edo besterengatik.

Bidelagunak ere badaude: euskaraz hitz egiteko ohitura daukaten horiek dira; euren helburu nagusia euskararen normalizazioan ekarpena egitea da. Ezinbesteko figura dira; bidelariei indarra ematen diete. Hala ere, ez daukate irakasle-rola, parte-hartzaile rola baizik. Baina, traktzio-lana egiten dute: indarra ematen diete bidelariei, euskaraz aritzeko eta bide horretatik jarraitzeko.

Euskal Herrian zenbat jende parte hartzen du holako egitasmoetan?

Sei mila kide parte hartzen ari dira, 120 bat herritan. Egitasmo batzuk herri-mailakoak dira, eta beste batzuk, eskualde-mailakoak, azken horiek herri txikietan. Horietatik guztietatik 1.200 (% 20) bidelagunak dira, eta 4.800 (% 80) bidelariak.

Zer esango zenieke parte hartzen auzartzen ez diren horiei?

Parte hartzen duen berbalagunik badaukate inguruan, zuzenean, berari galdetzeko esango nieke. Egiten ditugun inkestetan, bai bidelariei, bai bidelariei, euren helburuak lortzen dituztela esaten digute. ◀



Sexualitateen distirak

SAIOA HERNANDEZ CASTRO
Sexologoa eta psikologoa

Mundu eroan, ezinbestean harreman eroak

Aurreko mendetik gaur egunera, sexologia eta sexualitatearen aniztasunaren aldeko elkar- teek lan handia egin behar izan dute OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) hainbat praktika, desira eta harreman osasuntsuak direla onartu ditzan eta sexualitatea erotasunarekin ez lotzeko. Baina kasu, munduan lau pertsonetatik batek gaixotasun mentalen bat bizitzaren uneraren batean izan dezakegula entzun nuen hitzaldi batean aurreko astean. Beraz, galdera alderantziz planteatu behar zela konturatu nintzen, nahasmen edo gaixotasun mentalak zelako eragina dute norbere eta gizartearen sexualitatean?

Burua galtzea ohikoa bada ere, eta gehienak depresio, antsietatea edo bipolaritatea zer den jakin badakigula uste badugu ere, ezer gutxi ikertu eta lantzen dira nahasmen mentalak. Gaixotasuna dutenen artean oso gutxi topatzen dituzte haien errealtateaz hitz egiteko gai eta haien berezitasunak kontutan hartzeko prest dauden pertsonak.

Nahasmen edo gaixotasun mentalak norbanakoaren sexualitatean eragina du? Kasuak kasu oso errealtate desberdinak topatuko ditugu. Baina pertsona askok depresiotik ezin atera, desira ukatuz bizi dira, eta desirarik gabe, depresioan goibeltzen dira. Beste batzuk, mania garaian, edozein gauza egiteko gai sentitzen direnean, bere ideiak edo desirak aurrera ateratzen saiatuko dira, haien limiteak, eta noski besteak ere, mespretxatuz.

Bikote harremanetan gaixotasuna kutsatzen da? Bikotekidea ere zoratuko da? Nire ustez, bai, halabeharrez. Horregatik ikasi beharko dugu burua galtzen eta batez ere berreskuratzen, eta prest egon beharko dugu besteokin burua galtzera, baina batez ere berreskuratzera. Horretarako gure desirak premiazoak dira! ◀

«Arteari dioten begiruneak eramán ninduen Glasgowra»

Iñigo Garrido Rey areetarra 1995etik bizi da Glasgown. OaksBark elkarteán lan egiten du; bideo-sorkuntzaren bidez, arte eszenikoak uztartzeaz arduratzen da hori. Horrez gainera, Camcorder Guerrillas taldeán dihardu, boluntario; biztanleriaren sektore ahuleneke sufritzen dituzten gehiegikeriak salatzen dituzte kolektibo horretako kideek, irudien bitartez.



TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA** / ARGAZKIA: **IÑIGO GARRIDO REY**

Urteak dira Glasgown bizi zarela. Zergatik erabaki zenuen bertan geratzea?

Bai. 1995etik bizi naiz hemen, Glasgown, eta bertan lan egiten dut. Hala ere, aurretiaz, arte eszenikoén ikastaroa egin nuen, Londresko Westminster College ikastetxean; bertan esan zidaten arteén esparruan oso aurreratuta zegoela Glasgow: batez ere antzerkia eta dantza garaikidea zeuden mailarik gorenean. Horiek biak landu gura nituen; izan ere, arteak Eskozian zeukan indarrak eramán ninduen Glasgown geratzera.

Ez duzu Euskal Herriaren falta igarri?

Bai, jakina; baina, sarritan joaten naiz. Gutxienez, urtean birritan bisita egiten diet senideei. Batez ere, Euskal Herriko bizimodua izaten dut gogoan: kafean, tabernetan... giro polita egoten da. Bapo jaten eta edaten da. Gainera, nik oso gogoko dut hondartza; Eskozian ez bezala, Euskal Herrián eguraldi ona egin ohi du, udan. Hala ere, aurretik esan dudán bezala, ez dut harremanik galdu bertoko senideekin eta lagunekin; urtean, gutxienez, bi biderrez joaten naiz.

Antzekotasunik badago Euskal Herriko eta Eskoziako jendarteén artean?

Mundura zabalik bizi diren herritarrak dira euskaldunak eta eskoziarrak. Esaterako, Eskozian argi gelditu da hori Brexitari buruzko bozketarekin; ezezkoa eman zioten; ingeles-jendarteá ez bezala, eskuzabala goak direlako. Euskaldunak ere horrelakoak gara;

besoak zabalik hartzen ditugu kanpotik datozkigun lagun denak. Etorkinak guztiz integratuta daude herrián. Euskal Herriá joaten naizenean, Hego Amerikako eta beste herrialde askotako jendeá entzuten dut euskaraz hitz egiten. Nik ez nuen gure hizkuntza ikasteko aukerarik izan, ikastetxean irakasten ez zelako. Euskara ikasteá egiteke daukadan kontuetako

“Heldu nintzenean elikagaién bankurik ez zegoen; gaur egun, gero eta gehiago daude. Brexitak kalteá handitu egingo du”

bat da. Ostera, gaur egun, etorkinek gure hizkuntza eta ohiturak erraztasun osoz bereganatzen dituzte. Pozgarria da, benetan! Nire ustez, Eskozian ere gauza bera gertatzen da; eskoziarrak oso irekiak eta eskuzabalak dira.

Horren antzekoak ez diren hainbat kontu ere egongo dira, ezta?

Bai. Hainbat arlotan oso ezberdinak dira Euskal Herriá eta Eskozia. Aipatu dudán bezala, zoritxarrez, sukalde-kontuetan eskoziarrak ez dira oso trebeak. Jateko eta edateko nahiago dut Euskal Herriá.

Zure sorkuntza-lanak garatzeko aukera eman dizu Glasgown behar egiteak.

Ez zen ezerezetik sortutako aukera izan; behetik hasita egindako lan gogorra izan da nirea. Hala ere, nire ustez, arteetan eta sorkuntza-mailan aukera handiagoak daude; sortzaileek egiten dugun lana aintzat hartzen dute Eskozian. Garrantzitsua da hori. Beste lekuren batean lan handiagoá emango lidaketen egitasmoak gauzatzeko aukera izan dut hemen. Sorkuntzaren eta kulturaren arloetan askoz irekiagoak dira eskoziarrak; kanpotarrek egiten dituzten lanak errespetu osoz hartzen dituzte. Bestalde, esamolde ezaguna da bere jaioterrián arrakasta oso jende gutxi izaten duela dioena. Ez litzateke arraroa, neurri batean, halako zerbait gertatzea; izan ere, kanpora zoazenean, ahalegin handiagoá egin behar izaten duzu eskuarteán dituzun proiektuak garatzeko. Zureá ez den beste herrialde batean hutsetik hasi behar duzu: askotan, bertoko hizkuntza ikasi behar izaten duzu eta ohiturak ere ezberdinak izaten dira. Bultzada handiagoá ematen dizu horrek guztiak.

OaksBark sortu zenuen 1996an. Zer egiten duzue elkarte horretan? Zer eskaintzen duzue?

Arte-sorkuntzako askotariko diziplinetako proiektuak egin dituen elkarteá izan da betidanik OaksBark; 1995ean hasi ginenean, eskultura, musika, dantza garaikidea eta bideo-sorkuntza uztartzen zituzten egitasmoak egiten genituen. Horiek guztiak nahastu eta ikuskizun bat sortzen genuen;



antzokietan plazaratzen genituen horiek guztiak. Laburbilduz, arte eszenikoak uztartzeaz arduratzen da OaksBark. Hala ere, gaur egun, nagusiki, bideo-grafia-lanak egiten ditugu; hau da, batez ere, dantza garaikideko obrak eta antzezlanak grabatzen ditugu. Izatez, bideo-sortzailea naiz ni; hala ere, arteak uztartzea da OaksBark elkartearen muina.

Zinema-hezkuntzan aditua zara eta jendarte-bazterketa arriskuan dauden hainbat lagunegaz ere behar egin duzu. Zein da horren helburua?

Jendartean gauza handiak egin daitezke artea eta sorkuntza erabiliz; norbanakoetan, aldaketak eragin daitezke, barru-barrutik. Etxerik ez zeukaten lagunekin ere lan egin dut nik; kameraren aurrean edo atzean zeudela, gaitasun edo talentu bat zeukatela ikus zezaketen horiek guztiek. Euren bizitza aldatzeko berebizikoa izan zitekeen indarra eta motibazioa ematen zizkien horrek. Ildo berean, urteak daroatzat Eskoziako segurtasun handieneko espetxeko preso sozialekin lanean; arte-aldizkari bat plazaratzen dugu. Hala ere, nik lagundu baino ez diet egiten; euren ekoizten dute agerkaria. Horri esker, hainbat gauza ikasten gabe: aldizkariaren maketazioa zelan egiten den, besteak beste. Horrez gainera, hainbat ordenagailu-programa zelan erabiltzen diren ere ezagutzen ari dira, adibidez *Photoshop* eta *Illustrator* programak. Denbora lagun, eurentzat onuragarriak diren zenbait ezagutza bereganatzen ari direla konturatzen dira presoak. Izan ere, noizbait kalera aterako dira,

eta, orduan, esaterako lan-elkarriketa batera aurkeztuko direnean, hainbat arlotan jarduteko ezagutzak badauzkatela frogatzeko aukera izango dute. Eta ez da gutxi! Hala, nire ustez, norbanakoa barru-barrutik aldatzeko gaitasuna dauka arteak. Sorkuntzak garrantzi handia dauka; jendarte-arloan eragiteko ezin besteko tresna dela uste dut. Oso lagungarria da.

“ Eskoziak independentzia lortzea gustatuko litzaidake, Euskal Herriak eta Kataluniak ere aukeran izan dezaten ”

Camcorder Guerrillas taldeko sortzaileetako bat zara. Zer egiten edo aldarrikatzen duzue?

Boluntario gisa egiten dugu lan Camcorder Guerrillas taldean; gugandik hurbilen dagoen jendearengan eragina izan dezaketen gaiei buruzko bideoak egiten ditugu. Esaterako, hainbat urtetan, etorkinei tratatu txarra ematen ibili ziren bertoko agintariak; errefuxiatu-egoeran zeudela, euren eskubideak urratzen eta etxetik botatzen zituzten. Biztanleriaren sektore ahulenak sufritzen zituzten gehiegikeriak salatzeke sortu genuen Camcorder Guerrillas kolektiboa. Hala ere, esateko beharra dago, lana kobratu

barik egin arren, hasiera-hasieratik, bideo horiek modu profesionalean egiteko erabakia hartu genuela. Ostera, etorkinena ez da jorratu dugun gai bakarra; hurbileko bizilagunei eragin arren, dimentsio orokorragoa izan ditzaketen arazoak ere salatu ditugu: Faslaneko itsasontzi-basean dauden urpekari nuklearren aurkako oposizio handia egon zen garai batean, besteak beste. Afera horretan ere, bideo-salaketa bidezko lana egin genuen.

Bestelako gai batzuk jorratzeko asmoz, zelan eragingo die Brexitak kalteberak diren herritarrei?

Hainbat mailatan eragingo die. Ekainaren 8an, hauteskundeak egingo dira, Erresuma Batuan; eta ematen duenez, Brexitak kontserbadoreak mantenduko ditu boterean. Berrito ere eskuma izango da garai le edo, hobeto esanda, eskuin-muturra. Horrek esan gura du politika neoliberalak eta kontserbadoreak egingo dituztela, eta biztanleriaren sektore ahulak kaltetuko dituztela. Funtsean, bere kideak laguntzea da eskuin-muturraren egitekoa, boterean dagoenean; horretarako, herritar kalteberenak zapaldu behar badituzte ere. Dagoeneko gertatzen ari da: Eskoziara heldu nintzenean, ez zegoen elikagai-bankurik; gaur egun, gero eta gehiago daude. Herritar behartsuenekin gertatzen ari denaren adibide bat baino ez da jakiena; goian daudenei begirako jendartea bakarrik eraikitzen dabilta, kalteberenak are gehiago baztertuz.

Euskal herritarra izanda, zelan ikusten duzu Eskoziaren askatasun-grina?

Erreferenduma egin zenean, pozarren geunden. Euskal Herriari beti ukatu izan diote zer izan gura dugun hautetsontzien bidez erabakitzeke eskubidea. Hemen egonda, erabakitzen utziko zietela ikusteak ilusioz bete gintuen. Itxaropentsu geunden Glasgown euskal komunitatea osatzen dugun guztiok; ondoren desilusioak bete-betean jo gintuen. Hala ere, ematen du orain berrito gerta daitekeela: eskoziarrak mundura zabalik daude, ez dute Europa utzi gura, ez dute baztertuta geratu nahi. Berrito erreferenduma egiteko aukera sortu da. Nik prozesu bat izango balitz bezala ikusi nuen: eskoziarrak ez zeuden prest oraindik; oso azkar gertatu zen dena. Adibide bat jartzearen, hona etorri nintzenean, Eskoziak ez zeukan legebiltzarrik; gaur egun, Eskoziako Alderdi Nazionalak gehiengo osoa dauka, Berdeekin batera. Horrenbestez, egiazko aukera dago beste erreferendum bat egiteko eta, bide batez, herrialdeak independentzia lor dezan. Hemen geratzea gustatuko litzaidake, ondoren, Euskal Herriari eta Katalunian horretarako aukera egon dadin.

Eta Eskoziatik, zelan ikusten duzu Euskal Herriaren eta Kataluniaren egoera?

Euskal Herriari ez bezala, badirudi Katalunian bul-tzada hartu duela prozesuak; Madrilgo Gobernuak trabak ipini arren, aldebakarreko independentzia-al-darrikapena egon daitekeela ematen du. Ez dakit ondo aterako den ala ez; baina, garrantzitsua da Espainiako agintariei presio egitea, jendeari hitz egiten utz diezaioten. Demokrazian oinarritako kontua da. Euskal Herriari dagokionez, orain, indartsuago ikusten dut Kataluniako mugimendu independentista. Erabakitzeke eskubidearen gaia mahai-gainean dago Euskal Herriari; baina, badirudi Katalunian gertatuko denaren zain daudela abiatzeko. ◀



lazko edizioan 200 igerilarik baino gehiagok hartu zuten parte elkartasun-proban. © THE SWIMET

Elkartasunezko itsas zeharkaldia egingo dute Algortako Kirol Portuan, domeka honetan, Sortarazi elkartearen alde. Barikuan da izena emateko epemuga.

Datorren domekan, ekainaren 4an, elkartasunezko itsas zeharkaldiaren hirugarren aldia egingo dute Algortako Kirol Portuan. Ekimen horretan bilduko den dirua Getxoko eta Leioako Sortarazi elkarteari emango diote antolatzailerik; Sortarazik baztertuta dauden edo baztertzeko arriskuan dauden

pertsonen alde egiten du behar. Elkartasun-ekimen hori The Swimet eta Nergroup taldeek antolatu dute, Getxo Kirolak udal-erakundearen laguntzagaz. Proba goizeko 12:00etan hasiko da, etorkizun oparoko kategoriako igerialariakaz (14 urtez azpikoak); horiek 350 metroko distantzia bete behar dute Abrako uretan. 12:20ean, ir-

tengo dira nagusiak, kilometro bateko distantzia betetzeko. Zeharkaldiaren ibilbidea Bolako hondartzan hasiko da, eta helmuga Arriluzeko Gurutze Gorriaren alboan ipiniko dute. Antolatzailerik azaldu dutenez, gura duten igerilariak neoprenozko jantzia eroan ahal izango dute.

Inskripzioa egiteko helduek 15 euro ordaindu beharko dute, Sortarazirentzako dohaintza gisa. Izen-ematea datorren barikura arte, ekainak 2, egin daiteke, Internetez. Modu berean, proban parte hartzerik ez dutenek Sorta-

razi elkarteari euren ekarpena egin ahal izango diote, zero zenbakiko dortsala ekimenaren bidez edo zuzenean antolakuntzagaz harremanetan ipiniz.

Algortako itsas zeharkaldia 2015. urtean egin zuten lehenengo biderrez. Orduan, Rakel Mateo atleta paralinpikoa laguntzeko egin zuten ekimena. Joan den urtean, oster, Siempre Adelante elkarteari eman zioten laguntza, alboko esklerosi amiotrofikoa gaitza ikertzeko. ◀

info+: info@theswimet.com / 630 059 153
izen-ematea: / Sailkapenak.com

Olatuz Olatu programan hasi da lanean Getxo

Getxo Kirolak erakundea hasi da beharrean uretako kirolakaz lotutako klubakaz, Europar Batasunak sustatutako Olatuz Olatu (WoW, ingelesez) programa garatzeko. Ekimen horretan, Getxogaz batera, EBko honako hiri hauek dabilta modu koordinatuan lan egiten: Pesaro (Italia), Gdynia (Polonia), Stropkov (Eslovakia), Nancy (Frantzia) eta Dubrovnik (Kroazia). Sei udalerriek talde eragile bat eratu dute, Italiako Pesaro hirian pasa den martxoan egin zuten bilaren ondoren. Olatuz Olatu ekimenean hartuko dute parte bela, piraguismo, arraun eta urpekaritzako klubek. ◀

Sergio de Julián, EAEko arrantza-txapeldunorde

Datorren uztailaren azken aste-akabuan, Espainiako Urpeko Arrantza Txapelketan parte hartuko du Sergio de Julián getxoztarrak. Izan ere, De Juliánek Coruñaeko hitzordurako zuzeneko txartela irabazi zuen pasa den maiatzaren 20an eta 21ean Abrako uretan egindako Euskadiko Urpeko Arrantza Txapelketan. Zierbena eta Arminza arteko uretan eskuratutako arrainei esker lortu zuen bigarren postua, txapeldunorde izatea eta Espainiako txapelketarako sailkatzea. Txapelduna Eder García izan zen. Reala klubeko kideak lehenengo aldiz eskuratu du Euskadiko txapela. ◀

Arrantza-lehia, Areetako uretan, zapatu honetan

Getxo Arrantza klubak antolatu du Open Duos Getxoko Ipar Arrantza izeneko lehiaketaren laugarren edizioa. Ekimena egingo dute zapatu honetan, ekainak 3, 17:00etatik aurrera; arrantzaleak Areetako Bizkaiko Zubiko pasealekuan ipiniko dira, Lamiakoko arrapatatik Evaristo Churruaren kai-muturreraino. Txapelketan, arrain bakoitza hartu eta neurtu ondoren, uretan utziko dituzte berriro parte-hartzaileek. Hala, hildako aleek ez dute punturik emango. Modu berean, arrantza-gunea garbitzen ez duena sailkapenetik kanpo geratuko da. ◀

info+: Getxoarrantza.blogspot.com

Aitor Sáenz de Ojer omenduko dute, zapatuan

Zapatuan, ekainaren 3an, estropada berezia jokatu da Plentziako itsasadarrean. Euskadiko Ibaletako Koparako proba puntuagarria izateaz gainera, Aitor Sáenz de Ojer omendu, eta bere izena eroango du. Sáenz de Ojer abenduan zendu zen, 48 urte zituela. Barrika Piragua Taldeak gogorazi duenez, bazkide eta lagun erdugarria izan zen. Txapelketa 13:15ean abiatuko da, Plentziako metro-geltokiaren paretetik; 50 kirolarik baino gehiagok parte hartuko dute zenbait mailatan, kadeteetatik beteranoetaraino. Piraguietek hiru bira emango dizkiote lau kilometroko zirkuituari. ◀

Eskualdeko kirolariak, BATegaz



Eusko Jaurilaritzak eta EiTbK sortu zuten fundazioa 2007an. © ELENA ETXEBARRIETA - BASQUE TEAM

Basque Team (BAT) fundazioak 536.000 euro emango ditu bekatan, aurten, goi-mailako 43 kirolarentzat eta 14 teknikarientzat. Onuradunak 20 emakumezko eta 37 gizonezko izango dira. Gainera, Faduran egoitza duen fundazioak hamargarren urteurrena ospatuko du aurten. Rocío Ybarra Jolaseta taldeko hockey-jokalari da partaide berrietako bat. Beragaz batera izango dira María López de Eguilaz Jolasetako taldekidea, Jon Santacana eskiatzailea, Bárbara Pla Getxo Rugby Taldeko jokalaria eta Asier García saskibaloijokalaria. Denera, 77 eskaera jaso zituen Basque Team fundazioak; batzorde-teknikoak horietako 57 onartu zituen.

Bekak onartzeko edo ukatzeko aintzat hartu zituzten aurreko denboraldian nazioarte-mailako txapelketetan izandako emaitzak eta parte-hartzeak, «balorazio-irizpide zorrotzak ezarrita», Basque Teamek zabaldu duenez. Laguntza ekonomikoez gainera, beste hauek ere jasoko dituzte bekadunek: laguntza biomedikoa eta teknikoa, ikasketetan eta lanean hastean eskainitako laguntzak, coaching-zerbitzua eta irudi eta komunikazio zerbitzuak.

Aurten, Basque Team genero-berdintasuna bultzatzeko eta kirolariak balore eredugarriak transmititzeko duen apustuan sakontzen ari da. Zentzu horretan, kirolariak zenbait konpromiso sinatu behar dituzte. ◀

Goiherrik irabazi du taldekako zaldi jauzikoa

Goiherri zaldi-kluba nagusitu zen maiatzaren 20an eta 21ean Galean egindako Euskadiko Oztopo Jauzien Taldekako Zaldi Txapelketan. Hala, Andrea Polo, Estibaliz Trueba eta Oihane García Urtasun klub horretako zaldizkoek kopa handienak eskuratu zituzten lehiaketa amaituta. Goiherri zaldi-klubak gorai-patu egin ditu hiru emakumezkoek eta elkarteko beste kideek erakutsitako maila, eta eskertu egin du euren irakaslearen beharra. Bestalde, Galean etxeko taldea ez zen sari barik geratu, hirugarren geratu baitziren Asis Sáenz de Santa María, Teresa Sendagorta eta

Nerea Robles. Euskadiko txapeldunorde Mungiako taldea sailkatu zen. Aurreko ekimena ez da asteotan Uribe Kostan antolatu beharreko bakarra. Izan ere, datorren astelehenean, ekainaren 5ean, zaldi-jardunaldi teknikoa izango da Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian, 18:00etatik aurrera. Saio horretan, besteak beste, gai hauen inguruan egingo dute berba zenbait adituk: kirol-zaldien elikadura, ohiko arazo ortopedikoak eta kirol-zaldien zaldizkoek izandako hainbat esperientzia. Sarrera doakoa da, baina leku-kopuru mugatua dago. ◀

izen-ematea: Promo.pavo-horsefood.es/getxo



Galeako zaldi-klubean egin zen txapelketa. © EUSKAL HIPIKA FEDERAZIOA

Eskualdeko lau talde, Sokatirako txapelketan

Domeka honetan abiatuko da Euskadiko Lur Gainerako Sokatira Txapelketa, 640 kiloko modalitatean. Lehenengo saioa Berrizko futbol-zelaiaren ondoan egingo dute, goizeko 11:30ean. Bertan, zazpi talde arituko dira lehian txapela lortzeko. Uribe Kostatik faboritoak dira Erandioko Goiherri sokatira-taldeko kideak. Izan ere, orain dela pare bat aste 68oko txapelak jantzi zituzten. Orduan egin legez, oraingoan ere talde bi aurkeztu dituzte. Eurekaz batera izango dira Getxo eta Akelarre talde erandioztarra. Uribe Kostatik kanpo, Laukizko Gaztedik ere talde bi aurkeztuko ditu



Goiherrikoek beste txapela bat gura dute.

eta, azkenik, Mutriku izango da Gipuzkoako ordezkari bakarra. Bigarren saioa egingo dute ekainaren 10ean, zapatuan, Martiartun, 17:30ean. Azkenik, finala jokatu dute Bilboko Mallona auzoan, ekainaren 17an. ◀

Sopelan, lasto-altxatze Bizkaiko txapelketa

Bizkaiko Herri Kirol Federazioak antolatuta, Sopelan egingo dute Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketa, domeka honetan, ekainaren 4an. Saio bakarreko proba 13:00etan hasiko da, udaletxearen aurreko plazan. Bertan, Jon Loiola dimoztarrak iaz Arrigorriagan lortutako txapela berriz eskuratzeko ahaleginduko da. Uribe Kostako esperantza Beñat Amade algortarra da, Getxo Herri Kirol Taldeko kidea. Izan ere, Unaia Ardeo bere taldekide eta iazko txapeldunordea, ez da aurkeztu aurten. Beste lehiakideak izango dira Zaratamoko Unai Urizar, eta Arratzuko Bingen eta Xabat Erleaga. ◀

Getxoztarrak dira Euskadiko irristalari onenak

Irristalari getxoztar bi lehiatuko dira Espainiako Solo Dance Txapelketan, aste-akabu honetan. Málaga Fuenjirola herrira joango dira bidaian Naroa Etxebarria Abrisketa, Show Getxo elkarteko 13 urteko irristalaria, eta Naroa Ruiz Monge, Portugaleteko Kiribil Taldeko 12 urteko kidea. Etxebarriak txapela irabazi zuen Gurgildun Patinaje Artistikoko Euskadiko Txapelketan, solo dance modalitatean, kadete-mailan; Ruiz ere txapelduna da, libre eta solo dance modalitateetan, hurren mailan. Txapelketa hori pasa den maiatzaren 6an egin zen Barakaldoko Lasesarre Kiroldegian. ◀

Athletic, Uribe Kosta elkar-teagaz



Uribe Kosta A eta B taldeetako txapelak. © URIBE KOSTA ELKARTEA

Athletic Fundazioak iragarri du aurrerapauso berri bat emango duela, bestelako adimen-gaitasuna duten pertsonen zuzenduta. Hala, hurrengo denboraldiari begira, zortziko futbol-taldea osatuko dute. Ekimen hori Ahalegina proiektuaren barruan kokatuta dago; Ahalegina egitasmoa duela lau urte abiatu zuten, adimen-gaitasuna duten pertsonen prestakuntza integrala ahalbidetzeko prozesuan kirolaren bitartez laguntzeko.

Aipatutako zortziko futbol-talde berria osatze aldera, Athletic Fundazioak Uribe Kosta elkartearen laguntza izan du, Geu Be, Gorabide, Adizmi eta Down Sindromearen Fundazioa taldearenaz gainera.

Futbol-talde berriak hurrengo denboraldian ekingo dio lehiazeari eta LaLigak antolatu berri duen I Genuine Ligan hartuko du parte, lehenengo eta bigarren mailako Estatuko zenbait klubegaz. Athletic Fundazioak zabal-

du duenez, «talde-lanaz gainera, eta umiltasuna, esfortzua edota konpromisoa balore gisa transmititzeaz gainera, helburua parte-hartzaile guztien autonomia ahalbidetzea» izango da, «baita zentzumenen eta funtzio motoren hobekuntza ere».

Halere, Uribe Kosta elkar-teak ez du datorren denboraldira arte itxaron behar izango garaipena ospatzeko. Eurentzat 2016/17 denboraldia oparoa izan da garaikurretan. Hala, Uribe Kosta A eta Uribe Kosta B taldeek euren azken partidak irabazi, eta txapel-dun geratu ziren, Areto-futboleko V. Euskal Ligako Lehenengo eta Bigarren Mailan. Balentria hori pasa den maiatzaren 13an erakutsi zuten, Itzubaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian. Areto-futboleko Euskal Liga zenbait elkartek antolatzen dute. Uribe Kostaz gainera, Gorabide, Geube eta Adizmi dabil-tza beharrean Bizkaian, Atzegi eta Antigua Luberrri Gipuzkoan, eta Apdema, Arabako lurraldean. ◀

Zapatuan, Ander Manzanedo Eguna, Askartzan

Askartza eskubaloit-taldeak Ander Manzanedo Eguna antolatuko du Leioako ikastetxean, zapatu honetan, ekainaren 3an, goizeko 09:00etan. Klubak azaldu duenez, zortzigarren edizio honetan omenezko txapelketa goizez baino ez da egingo, gaur arte ez bezala. Bertan, honako maila hauek izango dira: benjaminurreko, benjamin, kimu, haur, kadete eta gazte kategoriak, emakumezkoetan eta gizon-zekoetan. Ander Manzanedo klubeko jokalaria izan zen, gizon-zekoetan lehenengo talde seniorrean, 2008/09 denboraldian zendu zenean. Berea zen 2. zenbakia erretiratu zuen klubak. ◀

Karabigane eta Berango batera, kirol-campusen

Lehenengo aldiz, Berangoko futbol-klub biek indarrak batu dituzte, urtero herrian egiten den futbol-campus antolatzeko. Hala, Berango Futbol Taldeak eta Karabigane Kirol Klubak campus euskalduna eskaini diete 5 eta 13 urte bitarteko neska-mutilei. Denera, bost asteguneko bost txanda izango dira, ekainaren 26tik uztailaren 28ra bitartean. Campusa 08:30etik 14:30era egingo da. Bertan, nazio-mailako entrenatzaileek bideratuko dituzte entrenamenduak; egunero hamaiketako, jolasak eta partida izango dira. Eguaz-tenetan txangoak egingo dituzte. ◀

info+: Hezihazi.com / 688 886 616 (Endika)



Malawiko Maghemu Youth futbol-taldeari futbol-arropa eta kirol-material asko helarazi zizkion Arenasek, pasa den maiatzaren 22an. Hala, Areetako futbol-talde historikoak Karonga herriko nerabeen talde horregaz adiskidetasun-harremana abiatu du. © ARENAS FUTBOL KLUBA

Fadurako eskalada-murrua berriro zabaldu zuten pasa den zapatuan

Jendaurrean aurkeztu zuten Fadurako eskalada-murru zaharberritua, pasa den zapatuan. Getxo Rokodromoa Klubak kudeatuko du kirol-azpiegitura hori, Getxo Kirolak udal-erakundeagaz lankidetzan. Getxoko klub berriak berritu ditu Fadurako frontoien eraikineko horma bateko eskalatzeko bide zaharrak, eta gune hori dinamizatzen hasi da. ◀

info+: rocodromogetxo@gmail.com



© GETXOKO UDALA

Ekainaren 10era arte izena eman daiteke Kosta Trailen parte hartzeko

Kosta Trailen 12. ekitaldia egingo dute ekainaren 11n, domekan, Sopelan. Oraindino, izena eman daiteke elkartasun-ekimenaren 20 kilometroko mendi-martxan eta 10 kilometroko sendiei begirako martxan. Horretarako, interesdunek Forum Sport kirol-dendetara jo dezakete, ekainaren 7ra arte. Handik aurrera, hilaren 8tik 10era, inskripzioak egin ahal izango dira Leioako Artea merkataritzagu-

nean, aurrez aurre. Internetez ere izena emateko aukera dago hilaren 9ra arte, probaren webgunean. Inskripzioa egiteko 5 euroko dohaintza egin beharra dago. Kosta Trailek diruz lagunduko ditu Bizkaiko Diabete Elkar-tea eta Giltzurrunetako Gaixotasunen Kontrako Lehiaren Elkar-tea. Kosta Trail da itsasoaren altueran egiten den lehenengo mendi-lasterketa. ◀

info+: Kostatrail.com

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Korrontzi taldearen Korrontzi & BOS diskoak eta DVDak zozkatuko ditugu

Korrontzi taldearen diskoa eta DVDa lortu gura badituzu, ekainaren 7a (eguztena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Ekaineko saria
Parapente-hegaldi bat, udan gozatzeko



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (barikua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

1		9						
		8						4
6				8	1		7	
5				7			3	
	9				2			
			6					9
				3				
7		4		2			9	5
9	6	5			7	2		

Soluzioa

8	1	2	7	4	8	5	9	6
5	6	8	9	2	1	4	7	3
9	4	7	5	3	6	1	2	8
6	2	4	8	5	9	7	1	3
7	8	5	2	1	3	9	6	4
1	3	9	6	4	7	2	8	5
2	7	6	1	8	5	3	4	9
4	9	1	3	6	7	8	5	2
8	5	3	4	9	2	6	7	1

+ Guardiako farmaziak, ekainaren 1etik 7ra

Berango

EGUIA. Sabino Arana, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Astelehenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre pl., 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Eguenean, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Domekan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

GARDE. Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052. Zapatuan, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO.

944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Eguenean eta zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana, 89. 944 803 191. Eguaztenean, 09:00-22:00.

RAMOS. Langileria, 92. LAMIAGO. 944 645 185. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi pl., 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Zapatuan, 09:00-13:45; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Martitzenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola Ander Deuna, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

Zarama

Birziklatzera bidean, badago hobetzea

Iazko hondakin denen % 19,7 bereizita bota zen edukiontzietan eskualdean. Ostera, Bizkaian batutako zarama denaren % 40,9 jaso zen gaikako batzearen bidez, hala jakinarazi du Bizkaiko Foru Aldundiko Hiri Hondakinen Behategiak.

IKER RINCON MORENO

Espezie gisa jaio ginenean, pertsonok urri-jaleak ginen eta ez genuen ezer ere xahutzen edo alferrik galtzen uzten. Hasiera batean ehiztariak eta biltzaileak ginen, eta ez genuen ezertxo ere uzten honda edo gal zedin: dena zen aprobetxagarria edo erabilgarria. Nomadak gixela, aldean eroandako dena beharrezkoa zen. Ostera, gure arbasoak materialak pilatzen hasi zirenean, hori dena aldatu egin zen. Nekazaritzan hasi bezain laster, gizon-emakumeon bizi-ohiturak errotik aldatu ziren. Hala, alde batetik, nomadak izatetik sedentario izatera igaro ginen, eta, apurka-apurka, jendar-teak osatzen joan ziren han eta hemen. Beste aldetik, pertsona-kopuru handiak leku berean batzeak arazo sakon bat eragin zuen: pilatzen ziren hondakinakaz zer egin? Hasieran, zarama nahiko gutxi sortzen zen, eta zibilizazio bakoitzak bere modura aurre egin zion arazo horri. XVIII. mendean, berriz, industria-iraultzak munduan bigarren eraldaketa sakon bat eragin zuen: ondasunak lehenengoz modu arin eta masiboan ekoitz zitezkeen. Horrek zaborraren pilaketa masiboa ekarri zuen, orokorrean, produktuak eskuragarriagoak eta merkeagoak zirelako; eta horiek apurtu edo hondatu eta berehala botatzeko ohitura hartu zelako. Are gehiago, XX. mendearen erdialdean, erabili eta jarraian botatzeko ziren produktuak modan jarri ziren. Horiek denak zarama bihurtzen ziren erabili ostean; ezta apurtzeko beharrik ere. Horrenbestez, norbanako bakoitza gero eta hondakin gehiago sortzen hasi zen; eta hala jarraitzen dugu.

Hiri-hondakinak, Uribe Kostan

Bizkaiko Foru Aldundiak urtero antolatzen du Hiri Hondakinen Behatokia; horrek Bizkaian sortzen diren hiri-hondakinak (HH) lokalizatu, sailkatu eta kuantifikatu egiten ditu; horretarako, datuak batzeko sistema bat diseinatzen eta mantentzen du, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak jasotzen duen hondakinen sailkapenaren arabera. Behatoki horrek dioenez, bizkaitarrok eguneko 0,96 kilogramo zarama sortu genuen iaz, batez beste. Uribe Kostan, ostera, zenbateko hori handiagoa da: uribekostarrok 1,09 kilogramo hondakin eguneko bota baikenuen iaz edukiontzietara; hau da, 62 tona urteko. Kopuru horretatik, eskualdeko auzokideok etxeko zaramaren % 19,7 bereizi genuen (papera eta kartoia; beira; bolumen handikoak; eta ontziak).

Gainontzekoa dena batera eta nahasian jasotzen duten edukiontzietara bota genuen. Ezin aipatu barik utzi, bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia eskualdeko herri denetan dagoela daborduko; beren-beregi, materia organikoa jasotzen da horietan. Hala ere, Aldundiak ez ditu horiek kontuan hartu iazko datuak balioesteko orduan.

Bizkaiko 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerri denen artean, Erandio da gutxien birziklatu zutena joan den urtean; baita biztanle-kopuru txikiagoko Uribe Kostako herrien artean ere (Barrika, Berango, Gortiz, Lemoiz, Plentzia eta Urduliz). Izan ere, erandioztarrak izan ziren eskualdean gutxien birziklatu zutenak, azken hiru urteotan legez. Hondakinen % 13,1 bereizi zuten erandioztarrek. Hori dela eta, Eran-

Askotariko ekintzak, birziklatzearen alde

Birziklatze-tasak hobetzeko asmoz, askotariko ekintzak egingo ditu Bizkaiko Foru Aldundiak aurrerantzean. Horien bitartez, sortzen ditugun hondakinak birziklatzearen garrantziaz eta beharraz ohartarazi gura ditu herritarrek. Horretarako, karpak ipiniko dituzte Bizkaiko hondartzetan eta jaietan. Horietan, monitore-talde batek ikastaroak eskainiko ditu, birziklapenagaz zerikusia duten gai denak hobeto ezagutu ahal izan ditzaten herritarrek. Ekimena ekainaren 1ean martxan ipiniko dute; irailera arte. Horrez gainera, janaria saltzen duen furgoneta batek bertoko produktuak eskainiko ditu, ekainaren 22tik irailera bitartean. Eta, Garbikerren bidez, saritu egingo dituzte hurrengo hauek: birziklapen-tasarik onena duen udala; azken urteetan tasa hori gehien hobetu duen udala; eta bizilagunen artean birziklapena sustatzeko ekimen gehien sustatu dituen udala. Sari horiek 2018ko otsailan banatuko dituzte. Modu berean, beste hainbat ekintza ere egingo dituzte. ◀

dioko Udalak hartutako neurriak «ez direla nahikoak» deitoratu du udalerriko EH Bilduk oraintsu. Altzagan eta Astrabuduan batze selektiboa egiteko edukiontzien kopurua «eskasa» dela dio, «Bizkaiko baxuenetakoa biztanle bakoitzeko».

Hala ere, gortiztarrek sortu zuten zarama gehien iaz; 1,38 kilogramo hondakin eguneko eragin zuten. Gutxien sortu zutenak, berriz, leioztarrak izan ziren; 0,96 kilogramo eguneko, batez beste. Gainera, gehien birziklatu zutenak ere leioztarrak izan ziren, sortutako guztiaren % 21,4 bereizi baitzuten.

Ekonomia zirkularrera heltzeko guran

Foru Aldundiak jakinarazi duenez, 605.232 tona hondakin batu ziren Bizkaian iaz. Horren % 40,9 gaika

Birziklapen-tasa % 65era igo gura du Bizkaiko Foru Aldundiak, Europar Batasunak 2030erako ipinitako helburuak betetzeko

jaso zen. Denera, batutako zaramaren % 42,64 birziklatu zuten; % 37,14 balorizazio energetikora bideratu zuten; % 1,14 konposta egiteko erabili zuten; eta % 19,08 gainontzekoak zabortegian amaitu zuen.

Foru erakundeak birziklapen-tasa % 65era igo gura du, Europar Batasunak 2030erako ezarri zituen helburuak betetzeko; horiek ekonomia zirkularraren barruan, 2015eko abenduan onetsi zituen EBK. Horren harira, Unai Rementeria ahaldu nagusiak azpimarratu du birziklapenari garrantzia ematen dion gizar-te bat sortzeko beharra dagoela, hondakinen sorrera murrizteko eta hondakinak baliabidetzat erabiltzeko. Lekuko erakundeei eta eremuei dagokienez, gehiago birziklatzean, udalen eta mankomunitateen gastua gutxituko dela iragarri du Rementeriak. Ahaldu nagusiak gogoratu du «Bizkaiko biztanleen % 100ak» duela gaikako bilketa eskura, eta horrek «erraztu» egiten duela «gehiago eta hobeto» birziklatzearen helburua. Modu berean, Aldundiak «birziklapen-sisteman urtero egiten dituen inbertsio handiei» etekina ateratzeko eskatu die herritarrei; aurtengo ekarpena 17,9 milioi eurotik gorakoa da. Aldundiaren arabera, horri esker, «Bizkaia hondakinen tratamendurako dituen azpiegiturek zaramaren kudeaketa egokia ahalbidetzen dute, eta bilketa-sistemaren osagarri dira». Horrez gainera, urte amaierara arte eta 2018ko lehenengo hilabeteetan, beste ekintza batzuk egingo dituzte, birziklatzearen eta berrerabilpenaren beharra azaleratzeko, berbarako udalantzako sariketa, birziklapenaren inguruko lantegiak, edo birziklatzeko eroaten diren bilgarrien truke kafeak doan banatzea. ◀

Hiri-hondakin Solidoen bilketa

ONTZI ARINAK


NEURRI HANDIKOAK

BEIRA

PAPERA ETA KARTOIA

DENAK BATERA BATZEA

BATZE SELEKTIBOA GUZTIRA



DATUAK: HIRI-HONDAKINEN BEHATOKIA (BIZKAIKO FORU ALDUNDIA)



Mundukatuak

Noelia Dacal Mentxaka buenosairestarra

«Buenos Airesek nazio-kultura baztertu egin du»

Noelia Dacal Mentxakak 11 urte daroatza Euskal Herrian, eta horien arteko zortzi Getxo udalerrian eman ditu; gaur egun, Azkorrin bizi da. Getxoztarra Argentina atzean utzi eta Uribe Kostara heldu zen 2006ko amaieran; dienez, handik gutxira erabaki zuen horixe dela bizitzeko gura duen lekua. Euskal Herrira bidaian etorri zen, bertoko «herriaren borroka ezagutzeko». Denbora batez geratu eta bidaiari berriro ekitea zen bere asmoa, «baina, Euskal Herria interesgarriena da, bidaian aurrera egiteko». Aitortu duenez, kontu hori azaltzen duen bakoitzean «lagunek barre egiten didate». Dena den, «hemen bizitzea oso erraza egin zait, hasieratik ondo etorria sentitu bainaiz; oso ondo hartu naute». Atzean utzi duen Ciudadela auzoak biztanle-dentsitate «oso altua» dauka. Izan ere, diktaduraren garaian militarrek gelen gune erral-

doi bat eraiki zuten, «ia nire etxearen ondo-ondoan». Bertan, birkokatu zituzten zenbait txabola-auzotako biztanleak, Bilboko Otxarkoaga auzoan legez. Hori ez bada, ez du bestelako berezitasunik, Dacalen iritziz. Bestalde,

“Zoragarria deritzot Euskal Herriko auzoetan herri-kulturaz kalean gozatu ahal izateari”

«zoratu egiten nau Argentina bezalako herrialde batean jaio izanak, zerbitzu publikoak doan bermatzen direlako: hezkuntza unibertsitateraino, osasungintza... horrelako kontuek nire ideologian eragin handia izan dute, ikustean munduko beste leku askotan ez dela berdin gertatzen». «Argentina osoa» bisitatzeko gomendioa egin du Da-

calek, «dena baita ederra, egia esanda». Halere, kultur mailan, getxoztarra kexu da: «Argentinak, eta bereziki Buenos Airesek, nazio-kultura baztertu eta ahaztu dute, jatorrizko herriak erbestera zituzten eta ia ez daukate presentziarik bizitza sozialean. Zoritxarrez, gelditzen diren komunitate gutxi horiek ez daude babestuta, eta muturreko pobrezian bizitzera behartuta daude. Maila politikoan ere, ez dago aldarrikapenik herri-identitatea berreskuratzeko». Horregatik, deigarria gertatu zitzaion Euskal Herrian «tradizioa etengabe kontuan hartzen, partekatzen eta garatzen segitzea», batez ere dantzari dagokionez. Bertoko jaiei «zoragarriak» deritze, «txosnei legez», eta «txipiroiak saltsan!». Bestalde, «aldi berean, bitxia, astuna eta dibertigarria» egin zitzaion hemengo poteoaren ohitura: «nire integrazioaren zati garrantzitsu bat bete zuen». ◀

NOR DA

Nongoa

Ciudadela auzoa, Tres de Febrero barrutian (Buenos Aires probintzia, Argentina).

Adina

35 urte.

Zertan dabil

Euskal Herrian, ostalaritzan behar egin du.

Ikasketak

Psikologia-ikasketak egin ditu. Horrez gainera, filosofia-irakasle izateko ikasketak amaitzean ditu; baina, ezin izan ditu ikasgaiak baliozkotu, LOMCE dela eta.

Noiztik Euskal Herrian

2006. urtearen amaieratik dago hemen.

NONGOA DA



Lurraldea

Argentina.

Azalera

2.780.400 km² (Argentinak bere aldarrikatzen dituen Antartikaren zatia, Malvinak eta beste uharte batzuk kontuan hartuta, 3.761.274 km²).

Ingurunea

Tres de Febrero barrutia, Buenos Aires probintzian.

Biztanleria

343.710 biztanle, 2015eko datuen arabera.

Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra. Aipatutako ingurune horretan Querandí herri nomada bizi zen. Gaztelaren eta Araukaniaren aurkako borrokek eta Europako gaixotasunek sarraskia egin zuten haiengan. Hizkuntza aspaldi galdu zen.

Dirua

Argentinako pesoa.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua